

Juntagailu kopulatiboak

PATXI ALTUNA

I. ETA

1. JUNTAGAILU kopulatibo nagusia hori da euskaraz, dudarik gabe. Bakarrik nahiz bestek osaturik erabili ohi da: *alegia, bai eta / eta bai; ez eta / eta ez*, ondoren *ere* dutela edo gabe.

Baina ez da *eta* juntagailu kopulatibo bakarra, ez nahitaezkoa. Hortxe ditugu *bai eta ez* soilak ere. Hauek *eta* gabe elkar ditzakete bi izen sintagma nahiz aditz sintagma, bai eta bi perpaus. Lehenak biak baiezkokoak direnean; bigarrenak biak ezezkokoak direnean.

Guziori ondoko orrialdeetan azalduko dugunez gero, mintza gaitezen orain *eta* soilaz.

2. Era guzietako sintagmak eta perpausak uztar ditzake. Bi baiezko:

(1) Goiz jaiki da eta lanean ari da

Bi ezezko:

(2) Ez du ikasi eta ez du ikasi nahi

Baiezkoa eta ezezkoa:

(3) Lehenxeago atera da eta ez du esan noiz arte

Ezezkoa eta baiezkoa:

(4) Ez du ekarri eta aitak ekarriko duela esan du

Izen sintagmak ere bai:

(5) Azak eta porruak erosi ditu
Goizean eta arratsaldean ditu eskolak
Lan eta lan ari da

3. Horren aldaera gisa, mendebaldeko euskalkietan batikpat, *ta / da* agertzen da maiz. Ez dirudi forma laburtu honek, halere, oso zaharra edota iparraldeko idazle zaharren artean ez oso hedatua bederen. Hegoaldean Larramendiz gero

gutxienez ezaguna dugu. Iparraldean, aldiz, Etxepareren, Leizarragaren, Axularrren eta beste gehiagoren testuetan ez da inoiz ageri. Oihenart da, guk dakigula, ekialdeko zaharren artean darabilen lehena –eta bakarra²–; behin bakarrik darabil gainera eta bestsoak hartara bortxaturik, noski:

- (6) «Surekin batu
Et' aise gabe,
Su nais bilhatu
Ta kisu labe»¹

4. Egungo egunean, ahozko hizkeran batez ere, maiz entzuten da forma laburtua; idatzian, haatik, duela urte batzu baino gutxiago. Darabiltenek (edo zerabiltenek) bokalez nahiz kontsonantez amaituriko hitzaren ondoren, kopulatibo soila nahiz bestelakoa zenean, erabili ohi zuten; *eta* bezalaxe, alegia, bata noiz, bestea noiz erabili lege zorrotzik bete gabe.

Zenbait herritan, Azkoitian ete bestetan, *enda* ere entzun daiteke oraino pertsona helduen ahotik.

5. Forma laburtu *ta* hori lehen partizipioari itsatsirik darabilgu, iparraldean baino hegoaldean gehiago, ahoz eta lumaz; esate baterako, *etorrita*, *eserita*, *esanda*, *joanda*... diogunean. Hauetan juntagailua aurreko perpaus zatiarena dela adierazten dugu; hots, horietan (*e*)*ta* kopulatibo hutsa ez dela eta hainbestez aurreko perpaus zatiari loturik ahozkatzen dugula mintzatzean, eta horrexegatik idazten ere loturik.

Iparraldean hori berori bi hitzak bereiz direlarik idazteko ohitura dute zaharrena, orain besterik ere ikusten dugun arren: *etorri eta*, *eseri eta*, *erran eta*, *ioan eta*... Hauetan irakurleari egozten zaio lana eta berak asmatu behar du, perpausaren zentzuaren arabera, *eta* hori ez dela kopulatibo soila, edota bai, eta ez baldin bada, aurreko perpaus zatiari dagokiola lotua, ez ondokoari. Alegia,

- (7) Aulkian eseri eta / honela idatzi zuen

6. Lehen partizipioa izan beharrik ez du, halere, *eta* hari lotzeko ahozkeran. Mitxelenak, esate baterako, behin honela idatzi zuen:

- (8) «Mintzaldi honen gaia, orduak hala agintzen *eta*, hestu mugabeharra denez gero, ezin begiak noranahi hedat»²

Are gehiago, adizkia izan beharrik ere ez; beste elementuren bati ere lot daioke *eta* nahiz *ta*; hala nola,

- (9) Gurasoak eta etorri ziren
(10) Ama ta ikusi genituen

7. Erabiliaren erabiliaz badirudi *etorrita*, *eserita*... eta gisa horretako egitura motetan hiztunak *-ta* hori *eta* baizik ez delako kontzientzia galdu duela, edota *etorritik* nahiz *etorria* bezain forma autonomotzat hartu dituela, eta maiz beste *eta* erasten dio gainean:

1. A. Oihenart, *Oten Gastaroa Nevrthizetan*, 16gn. (*Nahis espegui*...), 33. bertsua.
2. K. Mitxelena, *Arnaut Oihenart* (ikus *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 238. or)

(11) Mikel nekatuta, etzanda eta erdi hilda zegoen.

Hori baino okerragoa da gaurko zenbait hiztunen ohitura. Ez dakite nonbait *-ta* edo *-da* azken batean *eta* juntagailu kopulatiboa baizik ez dela eta horrenbestez plurala ezin onar dezakeela, eta *nekatua*, *etzana*, *hila* pluralez esan daitezkeenez gero, horiek bezalaxe aurrekoak ere pluralizatu egiten dituzte eta esan:

(12) Liburu guziak saldutak daude
Mutikoak oso nekatutak etorri dira
Neskak etzandak daude
Umeak hildak aurkitu zituzten

8. Azken adibide guziotan *eta* inolako dudarik gabe kopulatiboa baino zerbait gehiago da. Iker dezagun zer den zerbait gehiago hori. Kopulatibo soila deneko enxenpluak nahi adina aurki daitezke edozein idazlerengan. Axularrek, esate baterako, GERO osoan bi *eta* ezik gainerako guziak kopulatibo soilak ditu. Etxepareren enxenplu bat aipatuko dut, beste askoren artean, honek *eta* kopulatibo soilaren eta bestelakoaren kontzientzia garbia izateaz gain, batak eta besteak egunoroko ahozko mintzairan zuten *-eta* duten ahozkeraren desberdinaren arrasto zuzena utzi bait digu bertsoetan. Honela dio I,39an:

(13) Adoreçac / devocionez // eta galde / gracia

Hor *eta* kopulatibo soila da, dudarik gabe, lotzen dituen bi perpaus zatiek ez bait dute elkarren artean kausazko, baldintzazko ez beste inolako erlaziorik. Etxepareren hamabost silabatako bertso horrek (*devocionez* lau silabatakoa bait da hor, ez bostetakoa), beste edozeinek bezalaxe, lau silabatako bi lehen moldeen ondoan duen zesuraren atzean dago *eta* ezarria, ez aurrean. Horrekin Etxeparek adierazten digu *eta* hori, kopulatibo soila delarik, ahozka *daitekeela* egunoroko mintzairan ere aurreko perpaus zatiari lotu gabe. Honela, alegia: *Adoreçak deboçionez... eta galde grazia*.

Ikus, aldiz, besteok:

(14) Crucifica / iqhus eta // orhit adi / orduyan (I, 41)

(15) Sorthu eta / hil guinate // harc haz ezpaguiniça (III, 21)

Biotan *eta* zesuraren aurrean dago batean eta lehen eten txikiaren aurrean bestean. Biotan *eta* ez da kopulatibo soila, izan ere. Biotan aurreko perpaus zatia-ri *-horietan aditzari-* loturik eta itsatsirik ahozkatzen da egunoroko aho hizkeran ere. Alegia, horko *iqhus* eta mendebaldeko *ikusita* da ,eta horko *sorthu* eta mendebaldeko *sortuta*.

9. Ohar gaitzen bestalde bi azken bertso horietan, balioari edo esan nahiari gagozkolarik, denborazko perpausak edo sortzen dituela *eta* horrek. Axularren *eta* kopulatibo soila ez deneko bi pasarte hauetan bezalaxe:

(16) «Ordea oldartze hek egin eta, lehen zegoen eskura bihurtzen da» (30. zb.)

(17) «Baina egin eta berehala agertzen eta kofesatzen dituenari, beldur zaika...» (345. zb.)

Ikus Leizarragaren hau ere beste gehiagoren artean:

(18) «... baina hec iragan eta, guero gosse cedin» (Lk.,IV, 2)

10. Bestelako sintaxi baliorik ere izan dezake, haatik, Etxeparegan bederen, *eta*-k. Honako hauetan balio kausala nabarmentzen da, gure ustez:

(19) Ororen ama cira eta // baque guiçaçu bertaric (II, 135)

(20) Saroya da lohitu eta // eztut haren veharric (VII, 31)

(21) Beccatore guira eta // mira eztaquigula (XIII, 25)

Beste gehiagotan ere bai, eta, jakina, guziotan *eta* zesuraren aurrean kokatua dago, lehen esan bezala, kopulatibo soilak ez bait da.

Honako honetan baldintzazkoa da, gure ustez:

(22) Halacoa vci eta // non duquegu bercia (II, 40)

Eta hor ere zesuraren aurrean dago. Ikus azkenik balio kontzesiboa duen Ebanjelioko pasarte bat nola itzuli zuen Duvoisinék:

(23) «Zuek beraz, gaichtoak *izan-eta*, balimbadakizue gauza onen ematen zuen haurrei...» (Mt., VII, 11)

11. Etxepareren bertsogintzaren urrezko legea izenda genezake jokaera hori, ez bait dakigu beste inork horrelakorik inoiz egin duenik. Ziburuko Etxeberrik, esate baterako, *eta* kopulatibo soilak ez izanik ere, zesuraren atzean ipintzen du maiz, egunoroko mintzairaren legea urratuz. Hala nola,

(24) Guero ordean sendatu // eta erhassunetic
confessio eguitera beguirauc ahanztetic (M.D., 451-2)

(25) Bainan beguiac ikhussi // eta azquen ordua
nihori ematen dio merecien pagua (M.D., 1293-4)

12. Larramendi poliki ohartu zen *eta*-ren balio honez eta euskaldun askok gatzeleraz mintzatzean, hori zela eta, gaizki taxutzen dituzten perpausez ere bai, euskaratik hitzez hitz itzulirik tolestutzen zituztelako. Honela dio bere Hiztegiaren hitzaurrean:

(26) «Por no saber la diferencia del infinitivo y participio ni aver quien se la enseña, este bascuence «gosaldu ta joango guerala» lo traducen «almorzar y que iremos», siendo el sentido «iremos en almorzando o después de aver almorzado»³.

Ohar batetik *ta* darabilela, eta bereiz idatzirik; bestetik *gosaldu ta* partizipio deitzen duela.

13. Gauza nabaria da honenbestez *eta*-k balio kopulatiboaz besterik har dezakeela. Dei al dezakegu horregatik *eta* menderatzaile? Ezetz uste dugu, nahiz guk geurok orain baino lehenagoko lanetan Lafonen eta Mitxelenaren mintzatzeko moduari jarraituz, hala egin dugun. Hemen, aldiz, oraino eta hemendik aurrera ere, menderatzaile ez baizik kopulatibo soilak ez dela esatea nahiago dugu, eta hona arrazoia.

3. M. Larramendi, *Diccionario Trilingüe*, Prólogo, LVII. or.

Mundu guziak dakienez, mendeko perpausek ez dituzte onartzen adizki alokutibo deriztenak; *eta*-k osatuek bai, aldiz. Hau ezin esan daiteke, alegia:

(27) Ez diat ikusi, ez bait duk etorri

Ez bait da esan behar da. Baina beste hau, bai, esan daiteke:

(28) Ez diat ikusi, ez duk etorri eta

14. Azken exenplu hau abiapuntu harturik, garbi ageri da bi perpausak trukaturik ageri direla hor. Alegia,

(29) Ez duk etorri eta / ez diat ikusi

ahozka daitekeelako *-eta* aurreko zatiari loturik, alegia— gertatu dela gero trukeara hori. Behin maisu batek eskolako haur bati bere senidetxoak «pipar» zergatik egin zuen galdetu eta haurrak emandako erantzuna kontatzen digu Mitxelenak:

(30) «No ha veniro, la madre cría ha hecho y» = «ez da etorri, amak haur egin du-(e) ta»

eta honela esplikatzen:

(31) «Aquí la subordinación se ha producido, o se ha visto facilitada, por un hecho de pronunciación. *Eta* puede convertirse en enclítico y apoyarse en la palabra anterior, a diferencia de lo que ocurre con «y», «et», «and», «und», etc., que van siempre con lo que sigue: *amak haur egin du eta / ez da etorri > Ez da etorri, amak haur egin du-(e)ta*. De ahí viene, además, nuestro *etorrira, ikusita*, etc., en lugar del *etorririk, ikusirik* de los vascos orientales»⁴.

Ohar gaitzen Mitxelenak ere («Aquí la *subordinación* se ha producido...») *eta* horrelakoetan menderatzaile deitzen duela, guk iadanik ez bezala, lehen emandako arrazoiagatik. Baina horrez gain beste zerbait erantsi nahi genioke esanari.

15. «Gure» deitzen ditu Mitxelenak *etorrira, ikusita*... horiek, hots mendebaldekoak, eta ekialdeko beste *etorririk, ikusirik*... haiei kontrajartzen (ala parekatzen?). Mitxelenak ondotxo daki ekialdeko *etorri eta, ikusi eta*... «gure» omen direnen bixkiak izan daitezkeela, balio berbera izan dezaketela, eta grafia kontua dela azken batean bereizten dituen bakarra. Gogora, bestela, aurreko puntuetan esana.

Ikusten du, halere, zerbait berezi, batzuetan grafia kontu soila ez dena, «gure» horietan. Zer? Ene ustez hauxe: guretan (*e*)*ta* estuago lotzen zaiola, bai eta ahozkeran ere, lehen partizipioari ekialdekoetan baino. Horren alde bi proba aipa ditzakegu.

Bat: ez dut inoiz aurkitu *-ez* naiz ausartzen inoiz agertzen ez dela esaten— ekialdeko idazle zahar batengan *eta* berekin duen perpaus zatia beste zatiaren atzean kokatua. Bestela esan, ekialdekoek beti

(32) Amak haur egin du eta, ez da etorri

4. L. Villasante, *Sintaxis de la oración compuesta*, 16. or. (Mitxelenak liburu honi ezarri zizkion orripeko oharretan datoz hitz horiek).

diote edo idazten dute; ez, ordea,

(33) Ez da etorri, amak haur egin du eta.

Honelakorik sekula ez da ageri Etxepare, Leizarraga, Axular eta gainerakoe-tan, oso oker ez bagaude.

Bi: horrexegatik, ene ustez, «gure» zenbait dendatan irakurtzen den *Itxita*-ren pareko (?) *Itxi eta*, edo antzekorik, nekez aurkituko da ekialdeko denda batean. Haien *eta* horrek, izan ere, beste zerbait eskatzen du beti atzean eta ez dezake berak perpausaren azken bukaera marka. *Itxi eta* hango dendetan aurkitzen ez bada, *itxirik edo (b)ertsirik* bai, ordea. Horra Mitxelenak dioenaren argibidea.

16. Ahozko hizkeran eta, hain barkagarri ez dena, idatzian ere bai, «partizi-pioa + eta» moldea urratzeko joera nabari da gero eta gehiago. Alegia, «Ez diot eman, ez da etorri liburua ekarri behar zuena eta» entzuten da maiz, *eta* «ez da etorri» –gandik urrundurik. Edota beste hau ere bai: molde hori –«ez da etorri eta»– osorik eta erdibitu gabe eman bai, baina osoa perpausaren azkenean ezarri ordez aurrean ipinia, honela: «Ez diot eman, ez da etorri-eta liburua ekarri behar zuena». Egun hauetanxe entzuna dugu beste hau:

(34) «... nagusiak ez zion-eta hartarako baimenik eman»

Garbi dago, ordea, goiko horretan *eta*-k elkartzen dituen bi perpaus zatiak hauek direnez gero, 1. «Liburua ekarri behar zuena ez da etorri», eta 2. «Ez diot eman» trukaera egiterakoan berez bi zatiak ordena berean gorde behar direla eta esan

35. Ez diot eman, liburua ekarri behar zuena ez da etorri eta.

17. Zerk ahozka erazten dio hiztunari *eta* aurreko perpaus zatiari loturik batzuetan eta ez loturik besteetan? Edo areago dena, zerk irakurleari honako hau bezalako perpausa batzuetan honela

(36) Yon joan (egin) da eta / Mikel etorri da

eta beste batzuetan berriz honela:

(37) Yon joan (egin) da / eta Mikel etorri da?

Inolako dudarik gabé perpausaren bi zatiak elkarrekin zerrikusia duten gerta-ri bezala edota, aitzitik, zerrikusirik ez dutenak bezala sentitzeak, atzemateak. Alegia, Yon joan delako, esate baterako, etorri dela Mikel adierazi nahi badu hiztunak, edota horixe bera idazleak adierazi nahi izan duela somatzen irakur-leak, orduan honela ahozkatuko edo irakurriko du: «... *eta* / ...». Aldiz, Yonen joatea eta Mikelen etortzea zein bere aldetik gertatu diren egitateak badira eta ez bata bestearen arrazoi, ondorio, etab., orduan honela: «... / *eta* ...».

18. Bere baitan adizki perifrastiko bana duten bi perpaus *eta*-k elkartzen di-tuenean, bata nahiz besteak adizki laguntzailea gal dezake. Alegia,

(38) Ogia jan du eta ardoa edan du

beste bi modu hauetara alda daiteke:

- (39) Ogia jan du eta ardoa edan
 (40) Ogia jan eta ardoa edan du

Ez dagokigu hemen eztabaidatzea noiz eta zein kasutan gerta daitekeen laguntzailearen elipsia; ea adizkiak bi perpausetan mota berekoa izan behar duen nahitaez –bietan *nor* edo *nor-nori*, bietan *nor-nork* edo *nor-nori-nork*, alegia –ala ez, eta hala behar balu, hauek oker esanak dauden, esate baterako:

- (41) Etxera igo da eta emaztea makilatu
 Irrifarrez etorri zait eta dirua eskatu
 Ezagutu nau eta agur egitera etorri

Ea hori gehienez ere bigarren sintagmakoa ezabatzeko den beharrezko, ez bait ditu inork honako hauek txarretsiko:

- (42) Etxera igo eta emaztea makilatu du
 Irrifarrez etorri eta dirua eskatu dit
 Ezagutu eta agur egitera etorri zait.

19. Nolanahi ere, eta hau da hemen gehiena interesatzen zaiguna, bi perpausak ezezkoak direnean, nahiz bien adizki laguntzailea mota berekoa izan, ezabaketak badirudi baiezkotetan ez bezalako legeak dituela. Alegia,

- (43) Ez du ogirik jan eta ez du ardorik edan

honela ezin daiteke alda:

- (44) *Ez ogirik jan eta ez du ardorik edan

Bai, ordea, beste bi modu hauetara:

- (45) Ez du ogirik jan eta ez ardorik edan
 (46) Ez ogirik jan eta ez ardorik edan du

Baina euskal sena duen edonor konturatzen da azken biok ez direla mota bereko ezezkoak. Hemen ezezko kopulatiboen mundu korapilotsuan sartzen gara, ordea, eta aurreragoko utziko dugu kontu hau.

20. Lehen atal hau amaitzeko gogora dezagun *eta* beste zenbait juntagailuren osagarri izan daitekeela, hala nola *baldin eta*, *baizik eta*, *nahiz eta*, *noiz eta*, *non eta*, *zeren eta*... Gero eta gehiagorena, esango nuke, eta ez dakit hainbeste *eta*-ri ez ote zaion mugaren bat ipini behar. Horietako batzu ez ditut, izan ere, antzineko idazleengan inoiz aurkitu; urte batzuetatik hona, berriz, sisak gisa ugaltzen ari dira.

Hala Etxeparegan *balinetan* (edo *valinetan*), bai, agertzen da, baldintzazkoa alegia. Axularrengan ere bai *noiz eta* (9 bider). Besterik ez, ordea. Axularrek, esate baterako, *nahiz* bai badarabil kontzesibo gisa, hiru bider, eta hiruretan adizkiak –(e)la hartzen duelarik: *nahiz dela* (131, 220), *nahiz hari dadilla* (328).

Baina *nahiz eta* sekula ez. *Non eta*, *zeren eta* ere ez; hori gainera Axularrengan *zeren* 900 aldiz edo agertzen delarik, baina *eta* gabe beti. Are gutxiago *baizik eta*,

hark beti *baizen* bait dio; soilik, *eta* gabe beti. Ziburuko Etxeberrik, halere, *zeren eta* badarabil; ikus, *Ceren eta hautsi tuen Iaincoaren legueac* (M. D., v. 1016).

II. ETA osatua

1. Orain arte *eta* soila aztertu dugu, hori bait da, esan bezala, juntagailu kopolatibo nagusia. Maiz, ordea, beste hizkiz indarturik agertzen da, haiekin batean bi perpaus elkartzen dituelarik.

Ikus ditzagun honako perpaus hauek:

(47) Mirenek sagarrak erosi ditu

(48) Gorkak sagarrak erosi ditu

Ezabaketa prozedura soil baten bidez bi horiek honako honetan bil daitezke:

(49) Mirenek eta Gorkak sagarrak erosi dituzte

Hor *eta*-k izen sintagmak elkartu ditu, biei dagokien adizkia pluralean ezarriz. Baina bestela ere bil daitezke:

(50) Mirenek sagarrak erosi ditu *eta bai Gorkak ere*

Honela ere bai:

(51) Mirenek sagarrak erosi ditu, *bai eta Gorkak ere*

Bai eta honela ere:

(52) Mirenek sagarrak erosi ditu *eta Gorkak ere bai*

Hauetan hasierako (47) lehen perpausa batere aldatu gabe bestea lotu zaio hiru modutara: *eta bai... ere, bai eta... ere, eta... ere bai*, hasierako bigarren perpausari (48) osagai komunak kenduz; alegia, *sagarrak erosi ditu* errepikatu gabe.

2. Perpausak ezezkoak direnean, gauza bertsua gertatzen da. Har ditzagun

(53) Mirenek ez du sagarrak erosi

(54) Gorkak ez du sagarrak erosi

Bi horien bilketa honela egin daiteke:

(55) Mirenek eta Gorkak ez dute sagarrak erosi

Baina beste hiru modutara ere bai:

(56) Mirenek ez du sagarrak erosi *eta ez Gorkak ere*

(57) Mirenek ez du sagarrak erosi, *ez eta Gorkak ere*

(58) Mirenek ez du sagarrak erosi *eta Gorkak ere ez*

Beraz euskaraz birresanketa partikulak honelakoak dira komunzki, perpausak

ezezkoak direnean: *eta ez... ere, ez eta... ere, eta... ere ez*. Azter ditzagun, ordea, astiroago batzu eta besteak, eredu edo forma nagusi horiek aldaera txiki batzu onartzen bait dituzte. Has gaitezen ezezkoekin.

3. Har dezagun abiapuntu gisa Ebanjelioko pasarte hau eta ikus nola euskaratu duten zenbait itzultzailek: «Non est discipulus super magistrum, nec servus super dominum suum» (Mt., X, 24). Esaldi hori, gainera, Itun Berrian ez ezik, Kempisen *Kristoren Imitazioan* ere aipatzen da (III, LVI) eta, hori dela bide, lehenaren eta bigarrenaren euskaratzaile guziak –eta askotxo dira– dituzkegu aztergai eta lekuko. Ohar, halere, *Imitazioan* ez datorrela Mateorena hitzez hitz, baizik bi perpausak trukaturik. Honela dio Kempisek: «Non enim maior est servus domino suo, nec discipulus supra magistrum». Baina guri berdin zaigu, bietan «ez X + ez Y» ematen bait zaigu.

Has gaitezen Itun Berriaren itzultzaileetarik:

Leizarraga:	«Ezta discipulua magistruaren gaineco, EZ-ETA cerbitzaria bere iaunaren gaineco»
Duvoisin:	«Dizipulua ez da nausiaren gaineco, EZ-ETA sehia jaunaren»
Haraneder:	«Ezta dicipulua nausia baino guehiago ETA EZ sehia bere iauna baino guehiago»
Lardizabal:	«Icaslea Maisua baño gueyago ez da; morroya ERE EZ nagusia baño» ⁵
Inchauspe:	«Ez-ta dizipulia buruzagüia bëno haböro, ÊZ miscandïa nâusia benouago» ⁶
Olabide:	«Ez da ikaslea irakaslea baño geyago, EZ ETA morroya nagusia baño geyago ERE»
Iraizoz:	«Ikaslea ezta bere maisua baño geiago, EZTA ERE morroia bere nausia baño geiago» ⁷
Oiartzabal:	«Ez da ikaslea irakaslea baiño geiago; EZTA morroia ERE nagusia baiño» ⁸
Manzisor:	«Ez da ikaslea maixua baño geiago; EZTA morroia ERE nagusia baño» ⁹
Orixe:	«Ikaslea ez da irakaslea baño geiago; EZ morroia ERE nagusia baño» ¹⁰
(Ezkila):	«Ez da ikaslea erakaslea baino gorago, EZ ETA mutila bere jauna baino» ¹¹
(Yakin):	«Ez da ikaslea maisua baino handiago, ETA morroia ERE EZ nagusia baino handiago» ¹²
Kerexeta:	«Ez dago ikaslea bere irakaslea baiño gorago, EZTA morroia BE ugazaba baiño gorago» ¹³

5. Lardizabal, *Testamentu zarreco eta berrico Condaira*, 1855, 394. or. (1908ko argitaldian aldatu egin zuten: «... ez morroya ere nagusia baño» 501. or.)

6. Inchauspe, «L.L. Bonaparte Printziarentaco» egin zuen itzulpenean: 1856.

7. Iraizoz, *Yesu-Kisto gure Yaunaren Bizitza*, 199. or.

8. Oiartzabal, *Yesu Kisto gure Yaun eta Yainkoaren Bizitza ta Berri Ona*, 363, or.

9. Manzisor, *Jesukristoren Bizitza*, 213. or.

10. Orixe, *Urte guziko Meza Bezperak*, 885. or.

11. *Jesu Kristoren Berri Ona*, ed. EZKILA, 1974, 38. or.

12. *Kristau Bidea*, ed. Jakin, 1975, 141. or.

13. Kerexeta, *Euskal Biblia bizkaieraz*, 1976, 1467. or.

- Gotzaiak: «Ikaslea ez da bere irakaslea baino gehiago;
EZTA morroia ERE, bere nagusia baino gehiago»¹⁴
- Olariaga: «Ez da ikasle bat bere irakaslea baino gehiago,
EZTA yopu bat ERE bere jabea baino gehiago»
- Or.-Ker.-Zug.: «Ikaslea ez da maisua baño geiago,
EZ ETA morroia nagusia baño geiago»

Kristoren Imitazioaren itzultzaileek honela dakarte:

- Chourio: «Ecen cerbitçaria ezta handiago bere launa baiño,
EZ ETA discipulua bere nausia baiño»
- Fr. J.C. Echev.: «Cergatic, ez da servitzariya bere nagusiya baño andiyagoa,
EZTA ERE discipulua, bere maisua baño»
- Inchauspe: «Eci eztuçu dicipulia buruçaquiya beno haboro,
EZ cerbutzaria bere naussia beno guehigo»
- Greg. Arrue: «Ceren serbitzaria eztan bere Jauna baño andiogo,
AÑ GUCHI icaslea ERE bere Maišua baño gueyago»
- Pi Aba: «Otseña bere ugazaba baño aundiogo
TA ikaslea bere irakaslea baño geyago eztalako»
- L. Léon: «Schia, ezen, ez da bere nagusia baino gehiago,
EZ ETA haurra bere erakaslea baino gorago»
- Olabide: «Ez dalako otseña bere nausia baño aundiogo,
EZTA..... irakaslea baño gurenago»¹⁵
- Apaiç batek: «Morroia ez baita nagusia baño aundiogo,
EZTA ikaslea ERE, irakaslea baño»

4. Aise luza daiteke zerrenda, baina horiek aski direla uste dugu. Zer irakasten digu ager-multzoko horrek? Hauxe: *ez X + ez Y* esateko euskara hiru hitztxo haeuzaz balia daiteke: *ez, eta, ere*. Hirurez, nahiz biez, nahiz bakarrez. Bakarrez baliatu nahi izanez gero, horrek *ez* behar du izan nahitaez, hiruretarik hori bakarra bait da ukapena, hots «... + *ez Y*», adieraz dezakeena.

Bi erabiltzekotan, hori eta beste bietako edozein hauta daiteke, eta gainera hurrenkera batean (*ez eta, ez ere*) nahiz bestean (*eta ez, ere ez*).

Hirurak erabili nahi izanez gero ere, bi ordena dira zilegi: *ez eta ere* edota *eta ez ere*.

5. Aurreko zerrenda horretan *ez X + ez Y* esateko euskarak dituen hiru eredu nagusiak ageri dira:

- a. ez eta (ere)
- b. eta ez (ere)
- c. ez (ere)

Baina beste puntu bat ere aski nabarmen da: *ez (e)ta (ere)* eredu aise gailentzen zaio *eta ez (ere)* ereduari. Hogeitalau itzultzailetarik hamaseik hori hautatu dute. Gainerako zortziak oso barreiatuak daude. Hala Intxauspek (bitan) eta Orixek *eta* gabeko *ez (ere)* erabili dute; Haranederrek *eta ez*; Jakin-ek *eta... ere ez* eta Lardizabalek horixe bera *eta* gabe. Pi Abak ukapena —*ezjalako*— esaldi osoa-

14. *Itun Berria*, Euskal Herriko Elizbarrutietako Gotzaiak, 1980.

15. Olabiderenean moldiztegiko erruz esacra motz dago. Bi hitz falta ditu: «ere ikaslea» ala «ikaslea ere»?

ren bukaeran bakarrik ezarri du. Arruek, bestalde, *añ guchi* darabil, ondoren *ere* duelarik. Azken honezaz gero mintzatuko gara.

6. Garbi dago, horrenbestez, auzia diakronian eta idazleak nahiz euskalkiak erabat harturik begiratzten bada, ez dela erabilera guzior artean inolako bereizkuntzarik; hain jatorra da, alegia, *ez X + ez Y* esateko era bata zein bestea. Hortaz *eta ez (ere)* eta *ez eta (ere)* ereduaren artean bereizkuntzarik izatekotan, autore batbederaren baitan bakarrik izan daiteke gehienez ere, baina ez euskara osoaren historian. Hemen horko era guzi horiek ontzat jo behar dira eta *ez X + ez Y* batzuk bezain ongi besteak adierazten duela aitortu.

7. Idazle horiek hain puntu txikia euskaraz adierazteko aukera ugaria eskaintzen diguten arren, ez daude hor aldaera guziak agortuak. Batetik hiru eredu nagusi horietan *ere*-ren lekua alda daiteke, edota erabat ez ager. Bestetik, *eta* erabiltzen dela edota gabe, *ez* lot dakioke *ere*-ri, eta *ere ez* moldea sortzen delarik, perpausaren jarrera batean nahiz bestean koka daiteke.

Horregatik on dela uste dugu aldaera guziak hemen ipintzea, idazle horietako bakoitzak nolako aukera gizon duen ondoan ezarririk:

- A. a. *Ez eta ere* morroia nagusia baino gehiago
(Iraiz., Echev.)
- b. *Ez eta* morroia *ere* nagusia baino gehiago
(Oizartz., Manzis., Kerex., Gotzaiak, Olar.)
- c. *Ez eta* morroia nagusia baino gehiago *ere*
(Olab.)
- d. *Ez eta* morroia nagusia baino gehiago
(Leiz., Duv., Ezkila, Chourio, Léon, Or.-Ker.-Zug.)
- B. a. *Eta ez ere* morroia nagusia baino gehiago
- b. *Eta ez* morroia *ere* nagusia baino gehiago
- c. *Eta ez* morroia nagusia baino gehiago *ere*
- d. *Eta ez* morroia nagusia baino gehiago
(Haran.)
- C. a. *Eta* morroia *ere ez* nagusia baino gehiago
(Yakin)
- b. *Eta* morroia nagusia baino gehiago *ere ez*
- D. a. *Ez ere* morroia nagusia baino gehiago
- b. *Ez* morroia *ere* nagusia baino gehiago
(Orixe)
- c. *Ez* morroia nagusia baino gehiago *ere*
- d. *Ez* morroia nagusia baino gehiago
(Intxauspe)
- E. a. Morroia *ere ez* nagusia baino gehiago (Lardiz.)
- b. Morroia nagusia baino gehiago *ere ez*

8. Horko hamasei era horiek zuzenak dira guziak, gure ustez, eta gure idazleek –batzuk batzu eta besteek bestetzu– maiz erabiliak, batzu besteak baino gehiago, noski. Ausartuko ginatke esaten itzultzaile gehiago aztertuko bagenitu, guziak edo ia guziak aurkituko genituzkeela. Guri ez digu bederen horietako batzuk ere belarrian min ematen. Beste batzuk ematen digute min, hamasei horietako ez direnek eta egungo egunean zenbait jendek erabiltzen dituenek. Hauezaz gero mintzatuko gara, ordea.

9. Begiratu batera ageri denez, bi sail handi ditugu hor: bere baitan *eta* dutenena batetik (A,B,C), ez dutenena bestetik (D,E). Dutenek ere bi sorta osatzen dute: *eta*-ren aurrean dute *ez* (A), edota atzean, eta azken sorta hau ere bi talde-tan banatzen da: atzean, baina *eta*-ri kontra dago *ez* (B), edota *eta*-gandik bereiz *ere*-ren ondoren kokatua (C).

Ez dutenek (D,E) halaber bi sorta osatzen dute: *ez* perpausaren buruan dute (D), edota buruan ez baizik perpaus barnean eta *ere*-ren ondoren (E).

10. *Eta* gabeko horiei begira norbaitek galde lezake hor kopulatiboak ditugun ala elkarri eratzeki edo *inxtapuesta* deriztenak. Gure uste xumea hau da: D sortakoak zinez eta benetan kopulatiboak dira; E sortakoak ez, elkarri eratzekiak baizik. Bereizkuntza honen arrazoia gero *ez* bera azter dezagunean emango dugun arren, orain hauxe aurreratuko dugu: D sortakoetan *ez* indartua da, eta ez arrunta; E sortakoetan, berriz, ukapena guziz arrunta da.

11. Itzultzaile bakoitzak Mateorena aldatzerakoan nolako aukera egin duen ikusi dugu. Horrek ez du inola ere esan nahi, ordea, idazle horiek —horietako edozein— *ez X + ez Y* euskaraz ematerakoan hor darabilten ereduaz baliatzen direla beti, eta ez bestez. Ez eta hurrik eman ere. Gerta daiteke, eta hala da, idazle batbederak batzuetan *ez eta ere*, besteetan *eta ez ere* nahiago izatea, etab. Leizarragak, esate baterako, Mateoren beste hura (VII, 18) honela badakar ere,

(59) «Arbore onac fructu gaichtoric ecin daidi, eta arbore gaichtoac fructu onic ecin daidi»

ezabaketa gabe eta aditz sintagma osorik errepikaturik, Duvoisinek aldiz honela eman du:

(60) «Arbola onak ez dakharke fruitu gaichtoric, ez-eta arbola tzarrak ere fruitu onik»

hemen, lehen ez bezala, *ere* sarturik.

Haranerederrek are ghiago aldatzen du lehengotik:

(61) «Çuhaitz onac egozte tzarric ecin dakharque, ez eta ere çuhaitz tzarrac egozte onic»,

lehen *eta ez* erabili bait du.

12. Baina aldi berean egia da beste hau ere: ez dituzte idazle guziek eredu edo forma guziak erabili ohi. Nork bere gogokoak hartzen ditu beretzat, aukera eginik. Inork pentsa dezake gogoak ez baina nori bere euskalkiak eragiten diola aukera. Hori ez da erabat egia. Axular eta Ziburuko Etxeberri euskalki berekoak eta are garai berekoak ziren, eta halaz ere eredu desberdinez baliatu ziren, geroxeago ikusiko dugunez; Axularrek *bai eta* erabat baztertu bait zuen eta Ziburuko Etxeberriek ez. Etxeparek ere ez, *bayetare* erabiltzen bait du; ostera Axularren *eta bai* honek inoz ez.

Ezezko hamasei horietatik hiru bakarrik darabiltza Etxeparek: Aa, Bd eta Dd. Hona adibide bana:

(62) Eta ez iaquin lehen gaoyan non daten ostatuya
Ecetare çu ezpacira nor daquidan valia (I, 437-8)

(63) Enaçaçula othoy yrayz *eta ez* menosprecia (I, 398)

- (64) Eceyn iaunec eztu nahi muthil gaixtoa eduqui,
Ez pagatu soldataric cerbiçatu gaberis (I, 5-6)

Egia esateko, hiru sail nagusien ordezkari ditugu Etxepareren hiru horiek: *ez eta*-ren, *eta ez*-en eta *ez* soilarena. Leizarragaz ez gara benturatzen ezer segururik baieztatzen. Gehienez ere hauxe: *ez eta*, *bai eta*, biak darabiltza; *eta bai*, *eta ez*, berriez, ez ditugu aurkitu, baina horrek ez du esan nahi ez darabiltzanik; agian bai.

13. Diakronian zehar ez direla hamasei eredu horiek elkarren artean bereizten esan dugu eta *ez X + ez Y* adierazteko bata bezain jatorra dela bestea. Hortaz *eta ez ere*-ren eta *ez eta ere*-ren artean bereizkuntzarik izatekotan, biak darabiltzan idazle jakin baten baitan izan daitekeela gehienez ere bereizkuntza.

Har dezagun, esate baterako, Axular eta iker hark darabiltzan bi sail horien artean baden ala ez inolako bereizkuntzarik.

III. «EZ ETA... (ERE)» AXULARRENGAN

1. Oso gutxitan darabil. Hona haren liburuko pasarte guziak:

- «... Bada *ez eta* ohorearen iraungitzaille ere» (4. zb.)
 «... *Ez eta*, eztitut bethiere,... doktoeren erranak *ere*... euskarara bihurtzen» (11. zb.)
 «... *Ez eta* bada gu *ere*... ez kara behin ere lehenak» (40. zb.)
 «... *Ez eta* beraz ezta erraz izanen... usantza gaixtoaren *ere* utzte» (59. zb.)
 «... etzuten erremediorik; *ez eta* guk *ere*, bekhatutan hillez gero» (67. zb.)
 «... *Ez eta* beraz lainkoak *ere*... ezin dadukaio...» (78. zb.)
 «... Etzuen nahi... nehork utki zitzan *ez eta* zorhituz gero *ere* geldi zitezin» (79. zb.)
 «... *Ez eta* beraz eztu deus balioko... penitenziak *ere*» (138. zb.)
 «... *Ez eta* ondoko hei zertzaz paga... utzten baderauezu *ere*» (162. zb.)
 «... *Ez eta* etzara obligatu pagatzera, baldin...» (163. zb.)
 «... *Ez eta* etzaika absolbazinorik... eman behar... bihurtzen denean» (178. zb.)
 «... ez tu... etsai handiagorik: *ez eta* haragiak *ere*... haragia baino galgarriagorik» (271. zb.)
 «... ezta plazerik, *ez eta* konzientzia gaixtoa duena baithan *ere* ontasanik» (277. zb.)
 «... Zeren nola ezpaita... egoiten, *ez eta* ezta konsolamendurik *ere* edireiten» (277. zb.)
 «... ezta handik higitzen: *ez eta*... bekhatorea *ere* ezta gehiago iaikitzen» (388. zb.)
 «... *Ez eta* guri *ere* etzaiku kalterik ethorriko...» (398. zb.)

2. Hamasei dira danera; ez da besterik liburu osoan. Ostera *eta ez*... (*ere*) ehunka bider ageri da, gero ikusiko dugunez. Ezinbestekoa du aurreko perpausa ere ezezko izatea, jakina; *eta ez*-ek ez beti, esango dugunez. Hor berean ageri denez, aurrean ia beti puntuaketa larria du: puntua ia beti, hamabitan, eta koma soila bitan. Biotatik batean (277ko bigarrenean) honegatik: aurrean *nola*-k abia ematen dion mendeko perpausa duelako. Behin bakarrik ez du aurrean komarik ere, 79an. Hori besteak ez bezalakoa da, izan ere: *nabi* aditzaren bi kompletibo daude hor elkarri lotuak eta azpiegituran honela «*Ez ditzala nehork utki eta zorhituz gero ere, ez daitezela geldi*» beharko lukeena *-eta ... ere ez, alegia-*, azaleko egituran *ez eta ... ere* bilakatu da.

3. Puntu-komak gorabehera, horretan ez bait zuten antzineko idazleek lege finkorik, euskararen sena duen edozeinek aitortu behar *ez eta* horien aurrean

pausaldi luzea egin daitekeela ia adibide guzietan. Areago, entonazio edo doinuak berak ere leku horretan beherapen handia duela. Irakur bestela hortik harturiko honako hau:

(65) «...etzuten erremediorik; ez eta guk ere, bekhatutan hillez gero» (67. zb.)

Ezin uka *ez eta*-ren aurrean zerbait erabat amaitu eta beste zerbait hasten delako irudipena dugula. Konpara ezazu orain beste honekin:

(66) «Eztut liburutto haur letratu handientzat egiten. Eta ez xoil, deus eztakite-nentzat ere» (11. zb.)

Hau ia batere geldialdirik eta doinu jaisterik gabe irakur daiteke. Eta hori gainera lehenetarik puntu eta koma duena hartu dugularik, ez puntua duena, eta bigarrenetarik aurrean puntua duena, liburu osoan *eta ez* -en aurrean puntua duen ia bakarra.

4. Badu horrek gainera perpausen formazko loturan berean ere bere errainua. Hamasei horiei begiratzuz bertantxe ohartuko gara hiru puntuz. Bat: *ez eta*-ri ia beti aditz sintagma berria, are beste perpausa, darraikio. Bi: perpaus berria markatuz batzuetan *bada* edo *beraz* juntagailuak ageri dira, hots ilatiboak, beste perpaus hori lehen esanaren ondorioa edo dela seinalatuz, ez kopulatibo soila. Hiru: perpaus berria ia beti *ere*-k indartzen du.

Orain bada, hiru puntuok *eta ez*-ean nekez gertatuko dira, ikusiko dugunez.

5. Indargarri ia beti *ere* duela esan dugu. Bitan bakarrik falta da: 163 eta 178 zenbakietan. Ageri denean inoiz ez dago, haatik, *ez eta*-ri kontra ipinia, Etxeparegan beti dagoen bezala *-ecetare-*, baizik bereiz. Axularrek ez du, alegia, Aa eredurik.

6. Aditz sintagma, are perpaus berria, darraikiola ia beti esan dugu ere. Hala denean, *ez eta*-k berekin duen ukapena aski ez delarik, beste *ez* hartzen du adizkiak, edo *ezin*. Hala *eztitut* (11), *ezkara* (40), *ezta ... izanen* (59) eta abar ditugu. Hemen ere salbuespen bakarra 79 zenbakikoa da; ez dio, alegia, «...ez zitezin». Ezin esan ere esanahia erabat aldatu gabe. Ikus lehenxeago (III, 2) esana.

7. Hau ere euskal senak erakusten digu, ene ustez: *ez eta* ezin erditik ebaki daitekeen banakoa da. Hau esan nahi da: elkarren segidan doaz beti eta bien artean ezin besterik sar daiteke. Leizarragak eta Duvoisinek biak elkarri lotuz erdian marratxoia ipini dute Mateoren lehengo pasarte hartan. Lehenak horren kide den *baieta* (edo *bayeta*) batean idatzirik eman ohi du, gero ikusiko dugunez. Diogun, beraz, *eta* hor *ez*-en enklitiko dela.

Ez da hori *eta ez*-en kasua. Geure egunoroko azturak erakusten digu hori batetik; hortxe dugu, bestetik, Axularren esanplu hau, non *benturaz* sartu bait du bien artean:

(67) «...gutitan gerthatu da, eta benturaz ez sekulan gehiago eginen» (144. zb.)

8. Horregatik edo, beste puntu bat ere seinalagarri dela uste dugu. Baditu Axularrek maiz darabilen *eta bai*-ren ondoan *-bai eta* inoiz ez darabilela esana gelditu da— honako beste batzu ere:

(68) «... eta behar *ere bai*» (21. zb.)

(69) «... bigarreanean *ere bai*» (71. zb.)

Oso gutxi, baina bospasei bai.

Orain bada, horren pareko «(eta)... ere ez» ez darabil behin ere. Bestela esan, ezezkoetan lehen eman ditugun hamasei eredu haietarik C eta E osorik falta ditu.

Ez dugu uste horietakoak direnik itxuraz «... ere ez» daukaten honen antze-koak:

(70) «Beraz hunelatan etsaigoan dagoena *ere ez*, baiña guztien gaiñetik emaztètan dabilena ezta aphezetako on» (239. zb.)

Honelakoak atzekoz aurrera esanak ere baditu: hots, «... ere bai, baiña...» du-tenak; hala nola,

(71) «...bekhatuaren egitera *ere bai*, baiña guztiz ere... hurrenekoaren egitera behar dugula...» (77. zb.)

Baina, berriro esan, hauek ez dira gu orain aztertzen ari garen erakoak. Besteak beste honegatik: gu hemen *ez X + ez Y*-ren bigarren perpaus zatia euskaraz nola eman daitekeen aztertzen ari gara eta «...ere ez, baiña...» horiek funtsean adbersatiboak dira, gure ustez.

9. Norbait pixka bat harri daiteke ikusiz lehen San Mateoren hura itzuli zu-tenen artean *ez eta (ere)* gailentzen zitziola askozaz *eta ez (ere)*-ri eta Axularrek aldiz hain *ez eta (ere)* gutxi darabilela, *eta ez (ere)* baino askoz gutxiago. Baina ez da zer harri: bietan -ezezko hauetan eta gero aztertuko ditugun baiezkoetan—Axularrek maiteago ditu *eta ez / eta bai* ereduak besteak baino. Hain maiteago, non *bai eta ez* bait du behin ere erabiltzen, eta, ikusi bezala, *ez eta* oso bakanka.

10. Hortaz oraino esanak laburbilduz hauxe baiezta dezakegu: Axularrek *ez eta*-ren saileko laukotean lehena falta du; hots, *ez eta-k ere* bere kontra, batera ale-gia, idatzirik daramana.

IV. «ETA EZ... (ERE)» AXULARRENGAN

1. Ehunka aldiz ageri da haren liburuan; hirurehun aldiz baino gehiagotan. Ez dira halere *eta ez* guziak era berdinekoak. Batzu honelakoak dira: *bai X + ez Y*. Hauek ez zaizkigu oraingoz axolazko eta azkenerako utziko ditugu. Guri orain *ez X + ez Y* adierazten dutenak zaizkigu axola, ikasteko zer alde dagoen hori adierazteko darabiltzan *ez eta*-ren eta *eta ez*-en artean.

2. Ia beti bi izen sintagma lotzen ditu. Ikus askoren artean honako esenplu hauek:

(72) «Ioan zatzaizkit lurretik, baiña ez gogotik, eta ez bihotzetik» (1. zb.)

(73) «...ezpaita sendakizun, eta ez barkhakizun» (68. zb.)

(74) «...ezta gutitzerik eta ez berretzerik» (74. zb.)

(75) «...ezta... hartu behar okhasinorik eta ez eskudantziarik...» (94. zb.)

(76) «Eztuzu zuk... hartan parterik, eta ez ikhuskizunik: ...» (95. zb.)

(77) «... eztu esku-tokirik, eta ez lotzeko girthainik» (101. zb.)

(78) «... etzen sori, eta ez zilhegi...» (134. zb.)

3. Bi aditz sintagma ere lot ditzake. Ez dira lehengoak adina, baina bai mor-doxka. Ikus batzu:

- (79) «... ez, othoi, hargatik arbuia eta ez gaitz erran» (10. zb.)
 (80) «Zeren ez naiz ni... bekhaitzuko, eta ez... gaitzez iarriko» (10. zb.)
 (81) «...ezpaitakite batzuek nola eskiriba, eta ez nola irakur» (10. zb.)
 (82) «...etzutela... maliziarik pensatuko, eta ez herririk nahasiko» (16. zb.)
 (83) «... behin ere ez delibera, eta ez konpli,...» (34. zb.)
 (84) «... zuk eztuzu... sinhetsi nahi, eta ez enzun ere» (47. zb.)

4. Sintagmak sailean datozenean –hiru edo gehiago– azkenaren aurrean bakarrik ageri da *eta ez* ia beti:

- (85) «...etzara... hastandu, berezi eta ez aldaratu» (4. zb.)
 (86) «...ez lizateke euskara hain labur, eskas eta ez hertsii...» (10. zb.)
 (87) «... eztela iendartean ausart, entregu, bithore eta ez trebe» (10. zb.)

5. Bi *eta ez* ager daitezke, halere, elkarren segidan:

- (88) «...etzaitza... ikhorzirinak egiten, eta ez haragiak ethentzen, eta ez minberatzen» (61. zb.)
 (89) «...eztuela behar bekhaturik, eta ez bekhatuaren notharik, eta ez zimurduririk» (130. zb.)

6. Perpaus osoak ere utzar ditzake:

- (90) «...ezta errazkiago pagatzen. Eta ez bekhatusa ere ezta... erremediatzen» (55. zb.)
 (91) «...ezta ez handik segitzen... bekhatu egin dezakeiela, eta ez libertate hari... irauñ arazi ahal diaziola» (76. zb.)
 (92) «...eztut erran nahi eztela... neurria bethatzen, eta ez... orduan bethatzen dela» (77. zb.)

Ohar zaitetz puntu txiki batez bi azken pasarteotan ez dago, aurrekoan (90an) dagoen bezala, perpaus nagusiaren adizkia errepikaturik. Hala balego, aurrekoan bezala adizki laguntzaileak berriro *ez* eramango al luke? Alegia, honela al lioke: «...eta ez *ezta* handik segitzen...» batean eta «...eta ez *eztut* erran nahi...» bestean? Hala dirudi.

Halaz ere frankoki aitortu behar dut liburuaren lehenbiziko berrehun zenbakietan bederen ez dudala *eta ez*-ekin horrelako besterik aurkitu; *ez eta*-rekin bai, aldiz, lehen III, 4an eta 6an erakutsi dudana bezala. Horko (90) hori, hortaz, itxuraz bakarrik da salbuespena. Hor *eta* soila da, ene ustez, «ezta errazkiago pagatzen» + «...ezta... aisekiago erremediatzen» elkartzen dituen, «ez bekhatusa ere» tartekatua dagoelarik. Honela irakurri behar da, beraz:

- (93) «...ezta errazkiago pagatzen. Eta [ez bekhatusa ere] ...ezta ...aisekiago erremediatzen»

Zer esanik ez, gainera, «ez bekhatusa ere» horri *ez* ken dakiokela, zentzua deus ere aldatu gabe.

7. Batzutan aditz sintagma bakarra, ezezkoa noski, azkenean ager daitezke eta orduan *eta ez*-en aurreko sintagmak ere ukapena behar du. Ikus

- (94) «...ez berak, eta ez haren aitzinekoek ere, ezin bururik egin zutela...» (13. zb.)
 (95) «...ez hark berak, eta ez guk ere, ezkendukeiela hil behar» (37. zb.)

- (96) «...ez bere lagunak hiltzen zaitzala ikhustez, eta ez... bertze gauzaz, eztu konturik egiten...» (72. zb.)

8. Orainoko esenplu guzi horiek aski direla deritzagu horien bistan *eta ez*-i buruz zenbait gogoeta egiten hasteko. Puntuaketari dihoakonez, *eta ez*-en aurrekoa oso xehea dela garbi ageri da *ez eta*-ren aurrekoaren aldean; ia beti koma dugu *eta* askotan hori ere ez. BAKAN bakanak dira liburu osoan *eta ez*-en aurrean puntu duten pasarteak, lauzpabost. Hor dugu bat (90)an. Diogun berriro, beraz, *eta ez*-en aurrean pausaldia eta doinu beherapena ia hutsak izan daitezkeela.

9. Batzutan *ez eta*-ri beste perpausa *eta* are beste erako perpaus berria, ilatiboa, jarrai dakiokéela ikusi dugu lehen. Aldiz *eta ez*-i gehienez ere bere aurreko aditz sintagmaren guziz kidea: ikus arestian (6) esana. Hango (91) *eta* (92) esenpluetan *eta ez*-en aurrean *eta* atzean honako sintagmak ditugu mintzabide zuzenez emanik: «bekhatu egin dezake» *eta* «libertate hari... irauan arazi ahal diazaio(ke)», biak ukatuz, noski. Bestean, ostera: «neurria bethatzen da» *eta* «orduán bethatzen da», hemen ere biak ukatuz. Nabari denez, bi binakoak erabat kideak dira. Inola ez, ordea, *ez eta*-k lotzen zituen bezalako bi era desberdinetako perpausak: hots, kopulatiboak batetik, baina aldi berean ilatiboak.

10. Azkenik diogun *ere* noizpehinka baizik ez dela ageri *eta ez* osatuz. Hor aipaturiko hogeitabost pasarte horietatik lautan bakarrik, (90) ere barne delarik: hori *eta* (84), (94), (95). Liburu osoan ere proportzioa horren antzekoa da, edota are txikiagoa. Lehenbiziko ehun zenbakietan hamairutan ageri da *eta ez* indartuz, nahiz hamairu horietarik sei lehenbiziko hamairu zenbakietan ageri diren; gero, ordea, biziki bakantzen dira, 100. zenbaki arte bederen. Hona lehenbiziko hamairu zenbakietako seiak:

- (97) «...etzuela deusek ere hanbat kalte egiten arimako, *eta ez* gorputzeko ere, nola...» (6. zb.)
 (98) «Eztituzte... legeak *eta* azturak bat, *eta ez*... minzatzea ere...» (8. zb.)
 (99) «Eztut... letratu handientzat egiten. *Eta ez* xoil deus eztakitenentzat ere» (11. zb.)
 (100) «...irakurtzen duzula... *ez gaingiroki eta ez* arbuiatzeko kontuan ere» (11. zb.)
 (101) «... ezpaitzen... bekhaturen... omenik *eta ez* aiphamenik ere» (12. zb.)
 (102) «...ez berak, *eta ez* haren aitzinekoek ere, ezin bururik egin zutela...» (13. zb.)

Ehungarren zenbaki arterainokoak hauetan aurki ditzake nahi duenak: 37, 42, 47, 55, 64, 68, 78.

11. Axularren zenbait *eta ez* irakurriz batek baino gehiagok galdetuko du, agian, ez ote den pasarte askotan *ez* hori alferrikakoa, nolazpait esateko, edota betegarri edo apaingarri gisakoa, nahiago bada; kenduz gero, ezer aldaraziko ez lukeena, alegia. Har dezagun, esate baterako, lehengo (87) hura:

- (103) «...eztela iendartean ausart, entregu, bithore *eta ez* trebe» (10. zb.)

Zertako azken *ez* hori?, galde lezake norbaitek. Hori esan edo «...bithore *eta* trebe» esan gauza bera dela dirudike. Halaber zenbaki berean dioen beste (86) hura.

- (104) «...hain labur, eskas *eta ez* hertsia» (10. zb.)

Horren berdina dirudi honek: «...eskas eta hertsia». Baina ez da hala, noski. Hor Axularrek dioena besterik da eta horietan *ez* ez da alferrikakoa. Gehienez ere esan nahi duena zenbait euskalkitan *ere* gehituz emango litzateke: «...eta ez trebe ere», «...eta ez hertsia ere». Gaztelaraz esateko, hori «ni» da, alegia, eta ez «y».

12. Horiek horrela direla, agerian gelditu da Axularrek *ez eta* baino askozaz maizago darabilela *eta ez*. Halere, horren ondoan *ere*-k hartzen duen jarreraz esan behar dugu, ageri den aldi gutxietan inoiz ez zaiola *eta ez*-i itsastan, baizik bereiz eta harengandik apart agertzen dela. Inoiz ez, alegia, B. a. ereduari dagokion eran. Hortaz, *ez eta*-renean bezalaxe.

13. Beste era bateko *eta ez* badarabilela ere esan dugu: *bai X + ez Y* adieraztekoa. Hau gero aztertuko ditugun baiezkotan agertuko zaigun *Ez X + bai Y*-ren mota baten guziz antzekoa da. Hona hemen guri orain dagokigun lehenaren zenbait pasarte, beste askoren artean:

- (105) «...euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak» (10. zb.)
- (106) «...nahikundeia baita eta ez nahia» (30. zb.)
- (107) «...iduria du, eta ez izana» (37. zb.)
- (108) «...ezina da eta ez pairua» (119. zb.)
- (109) «...bertzek egiten duela, eta ez zuk» (159. zb.)

Asko dira. Ikusten denez, hauetan ez da *ere* ageri; ez hauetan eta ez hauen antzeko gainerakoetan. Ezin ageri ere inola, hori agertzeko lehen perpaus zatiak ere ezezkoa izan beharko bait luke ezinbestean. Garbi dago, bestalde, adizkiaren elipsi bidez sortzen direla horrelakoak.

Hauek *eta* gabe ere esan daitezke, noski:

- (110) «Ni joango naiz, ez zu»

Baina hartara ez dira gehiago kopulatiboak, elkarri eratxekiak baizik.

V. EZ

1. Gatozen orain euskaraz *ez X + ez Y* adierazteko ipini ditugun hamasei era haietako D. sailera. Lan honen aurren aurreneko lerroetan esan dugu (ikus I, 1.) *ez* bera bakarrik, *eta* gabe alegia, izan daitekeela juntagailu kopulatiboa. Hau, entzun eta beste gabe, aski sineskaitza gerta daiteke eta argibidea behar du.

Gero beste leku batean (ikus II, 10.) *ez* indartua eta *ez* arrunta aipatu ditugu, lehena kopulatiboa dela eta bigarrena ez dela baieztatuz. Argi dezagun puntu hau, aurreko orrialdeetan agertu zaigun zenbait exenplutatik abia harturik.

2. Etxepareren bertso hauek aipatu ditugu:

- (111) «Eceyn iaunec eztu nahi muthil gaixtoa eduqui,
ez pagatu soldataric cerbiçatu gaberico» (I, 5-6)

Intxauspek berriz honela aldaturik eman digu San Mateorena:

- (112) «Ez-ta dizipulia buruzaguia bêno habôro,
ez miscandia nâusia benouago»

Eta *Kristoren Imitazionekoa* honela:

- (113) «Eci eztuzu dicipulia buruçaguia beno haboro,
ez cerbutzaria bere naussia beno guehiago»

Azkenik Orixek ere San Mateorena honela:

- (114) «Ikaslea ez da irakaslea baño geiago;
ez morroia ere nagusia baño»

3. Euskal senera jo beharrean gara berriro ere. Hori duenarentzat gauza nabaria da, gure ustez, testu horietan lehen perpaus zatiko *ez*-a eta bigarrenekoa ez direla berdinak. Lehenekoa arrunta da, nolazpait esateko; bigarrenekoa, aldiz, indartua edo. Indartua doinuaren aldetik eta horrez gain ahozkatu ondoren pausaldi laburra eskatzen duena, ez bait zaio ondoko hitzari lotzen. Etxeparenean, esate baterako, –eta hor hobeki nabarmentzen da dioguna, bada partizipioa darraikio– gauza garbia da horko hori eta aginduzko «Ez paga(tu)!» ez direla modu berean ahozkatzen.

Bestela esan, indartua deritzaguna *ez eta*-ren ordaina da eta aztertzen ari garen perpausetan «...+ *ez Y*» adierazteko behar beharrezko baldintza eta aldi berean asko adinakoa, beste batean esan dugunez (ikus II, 4.). Are garbiago, arrunta delakoa gartzeleraz «no» da eta indartua delakoa, berriz, «ni».

4. Ukutzen diren bi zatiak izen sintagma soilak direnean, lehenak aurrean ez du adizkiak berekin duen ukapenez besterik behar. Ez da, alegia, exenplu honetan ditugun hiru *ez*-etarik bigarrenaren beharrik:

- (115) Ez dio erosiko ez aitak (eta) ez amak

Hala Etxeparek esango digu:

- (116) «Munduyan ezta gauçaric hain eder ez placentic» (III, 55)

Ia esaldi bera Axularrek ere honela:

- (117) «...etzaikala Iainkoari eder eta ez plazent» (160. zb.)

Bien artean alde txikia bada, halere: Axularrek hain maitea duen *eta ez* dio Etxepareren *ez* soilaren ordez.

Gauza bera gertatzen da aditz sintagma aurrean gabe atzean badoa; aski da esatea

- (118) Aitak ez amak ez dio erosiko

Ez dago «Ez aitak...» esan beharrik. Ikus, adibidez, Leizarragaren hauek:

- (119) «...ecen haraguiac ez odolac eztrauc hori reuelatu» (Mt., XVI, 17)
(120) «Legueac ez Prophetéc eztute deus autoritateric» (Aduertimendua, 4. or.)

Bi izan beharrean hiru sintagma edo gehiago badira, berdin da. Etxeparek honela dio:

- (121) Apezeq ez apezpicuq ezetare ayta saynduc
absoluacen halacoaren eceyn bothereric eztu» (I, 200-1)

Hor honako hau dugu: $\emptyset + ez + ez\ eta\ (e)re$, baina hirugarren hau *ez* soila ere izan daiteke.

5. Beste batzutan aditz sintagmak dira ukatzen direnak. Etxepareren hartan (111), esate baterako, *eduqui* eta *pagatu* ukatzen dira, «nahi du» adizkia bigarrean ezabaturik. Horrelakoak dira.

- (122) Ez du egin ez egingo
(123) Ez da etorri ez etorriko

Ikus Leizarragaren hau, adibidez:

- (124) «...nahi ukan du...halaco conditionerequin, non ezleçaten berce launic eçagut ez berce laincoric recebi» (Aduertimendua, 4. or.)

Edota Etxepareren beste hau:

- (125) «Egundano ezta içan ez içanen iagoytic
Iudicio hayn handiric...» (I, 260-1)

Leizarragaren hau ere (Mk. XIV, 68) molde berekoa da, baina hemen bigarren perpaus zatiko adizkia forma pertsonalean dago eta sintetikoa da gainera. Ezinbestean *ez* bikoitzaz baliatu behar izan du:

- (126) «Eztinát eçagutzen, ez etzeaquinat hic cer dionán»

Honako hau ere bai (Lk., XX,35) eta hemen adizkia perifrastikoa izanik ere, *ez* bitan ipini du:

- (127) «...eztuté harturen ezconçaz, ez eztirade harturen»

6. Euskaraz badugu, haatik, bestelako *ez X + ez Y* dirudien bat emateko beste eredu bat, inoren gramatikan, nik dakidala, azaltzen ez dena, nahiz egungo euskara mintzatuan ere bizirik dagoen. Erka ditzagun, esate baterako, Etxepareren azken bertso horren (125) adizkiak eta beste honenak:

- (128) «Ez galdu da ez galduren çure gomenducoric» (II, 102)

Bataren eta bestearen bigarren perpaus zatikoak berdinak dira: «ez içanen» eta «ez galduren». Aldiz lehenekoak ez, eta bereizkuntza agudo ageri da. Lehenean —«ezta içan»— ezezko adizki perifrastikoa komunzki eman ohi dugun eran dago tolestatua; alegia, ukapena lehenik, gero adizki laguntzailea eta azkenik partizipioa. Bigarrean, ordea —«Ez galdu da»— adizki laguntzailea eta partizipioa trukatu gabe daude, baiezko perpausetan bezalaxe, *ez* ukapenak adizki laguntzailea bereganatu ez duelarik.

Hori formari gagozkiola. Esan nahiari begiratzen badiogu, berriz, euskaldu-

nik gehienok ados egongo ginatekeela uste dut lehen bertsoan *ez* arrunta eta *ez* indartua ditugun bitartean, bigarreanean bi *ez*-ak indartuak direla. Gazteleraz esateko, lehena «No... ni...» itzuli behar dela eta bigarrena «Ni... ni...».

7. Orain bada, gauza jakina da XIX. mendeko zenbait idazlek, giputzek batez ere, garbiro ez dakizkigun arrazoiegatik maiz esan ohi zutela «etorri ez da», «esango ez dut» eta abar guk eskuarki «ez da etorri», «ez dut esango» erabiltzen ditugunen orde. Ez dakigu ere noiz erabiltzen zuten bata eta noiz bestea, biak ageri bait dira idazle berengan, eta ez nola bereizten zituzten, baldin bereizten bazituzten eta ez baziren estilistika maila soileko bereizketak. Hona, askoren artean, Mendibururen pasarte hau, non lau adizki perifrastikoetarik bi, lehena eta laugarrena, modu batera ematen bait ditu, eta beste biak bestera:

- (129) «Cenzanz andiric ez duèn becatariac *ez du anitz beguiratzen* becatuz galdu duèn cerura ta damu andiric *arcen ez du* hura galdu-ta; cerura baño gueiago *beguiratzen ez du* bere becatu beràz irabaci duèn sulece infernura ta *ez dute anitz izutzen...*»¹⁶

Beraz ezezko adizki perifrastikoak dituen hiru osagaiak hiru modutan tolestaturik ager daitezke euskaraz, beren ordenari dagokionez:

- a. *arcen ez du*: partiz. + ukapena + adizki laguntz.
- b. *ezta içan*: ukapena + adizki laguntz. + partiz.
- c. *ez galdu da*: ukapena + partiz. + adizki laguntz.

Hau horren soilki esanik egia da eta ez egia. «Ez galdu da» beste gabe ez da ezer; ez da euskara, esango nuke. Erdi horri, zuzena izateko, beste erdia zor zaio: «ez galduren», eta hartara bakarrik, biak osorik harturik, da zuzen lehen erdia.

Lehen horren (a.) pareko bat Etxeparek ere badu:

- (130) «Esquer honbat uqhen eztut çuyeganic vician» (I, 342)

8. Ez beza inork pentsa Etxepareren «Ez galdu da ez galduren...» hori poetaren bitxikeria denik; horren antzekoak edozein idazlerengan aurki daitezke eta, esan bezala, egungo egunean ere bizirik daude. Etxeparek berak badu beste bat:

- (131) «Ez bat ori ahal duquet ezetare vercia» (IV, 21)

Hor ere ez du ukapenak adizki laguntzailea bereganatu; ez dio, alegia, «Ez duquet ahal bat ori...». Leizarragagan mordoska bil daiteke. Ikus biok:

- (132) «ez nekatzen dirade, ez iruten duté» (Mt., VI, 28)

- (133) «Guc ez letraric recebitu diagu hiçaz ludeatic, ez ethorriric anayetaric nehorc denuntiatu dic edo erran deus hiçaz gaizquiric» (Apost. Act., XXVIII, 21)

Azken biotarik lehena (132) Lukasenean (XII, 27) bestela ematen du, latinez Mateorenean bezalaxe esana dagoen arren —«non laborant, neque nent»—, gerke-razko juntagailuak ez bait dira bietan berberak: Mateok «ou... oudè...» dio eta Lukasek «oué... oué...», aldiz. Hots, lehena gaztelerazko «no... ni...» eta bigarrena «ni... ni...», guk lan honetan behin eta birritan diogunez. Hona nola:

16. S. Mendiburu, *Mendibururen Idazlan Argitaragabeak*, I. tomoa, 301. or.

134. «eztirade nekatzen, eta eztute iruten»

Axularrek ere hiru ditu, oker ez bagaude, Etxepareren hura (128) bezalakoak:

- (135) «Baiña ez mundua da eterno eta ez haste gabe, eta ez hargatik egotu lainkoa egundaino alferrik...» (20. zb.)
 (136) «Ez atseginik nahi du utzi, eta ez penarik hartu...» (31. zb.)
 (137) «Ez nik izaneren nuen hunembat damu, eta ez hunek ere hunembat kalte eta atsekabe» (359. zb.)

Ikus azkenik Fray Bartolomeren hau:

- (138) «Bada ez olgueeta guztiac dira onac: ez guztiac dira chaarrac edo pecatuzcuac»¹⁷

Ohar zaitetz Axular dela bigarren perpaus zatia lehenari lotzeko *eta ez* darabilen bakarra, hiru pasarteetan gainera. Besteek *ez* soila darabilte. Etxeparek halere behin (131) *ezetare; ez eta*, beraz, baina ez Axularrek bezala *eta ez*.

9. Axularren (135) pasarteari argibide labur bat zor zaio. Elkarren balantzan bezala dauden eta gartzelerazko «Ni...ni...» biei dagozkien perpaus zatietarik lehenena «Ez mundua da eterno...» da, noski; baina bigarrena ez da horri darraikion «eta ez haste gabe», baizik ondoko «eta ez hargatik...». Bestela esan, hor bi *ez* indartuk ukatzen dituzten bi perpausak hauek dira:

- a. «Mundua eterno eta haste gabe da»
 b. «lainkoa egundaino alferrik egotu da»

Eta Axularrek dio: «Ez bata da egia eta ez bestea». Aita Villasantek, horrexe-gatik, Axularren «...eta ez trebe», «...eta ez hertsia» eta horien antzeko gehienak gartzeleraz «ni» baten bidez itzultzen dituen arren, honako honetan hiru «ni» pila ez zitezen, «...eta ez haste gabe» honela itzuli du: «...y sin principio»; guziz egoki, noski. Ikus osoa:

- (139) «Pero ni el mundo es eterno y sin principio, ni por eso ha estado Dios jamás ocioso».

10. Etxepareren bi pasarteek (128) (131) argitzen ez diguten puntutxo bat Leizarragaren biek eta Fray Bartolomerenak egiten digute. Hauxe da puntua: Etxeparek bi pasarteetan bigarren perpaus zatian adizki laguntzailea esan gabe utzi du: «...ez galduren» dio batean, «...ezetare vercia» bestean. Erabiltzekotan non eta nola beharko zukeen? lehen perpaus zatian bezala *ez*-ek bereganatu gabe ala ezezko perpaus arruntetan bezala *ez*-i itsatsirik? «...ez galduren da» ala «...ez da galduren»?

Bada belarriak erakusten digu batetik lehenena («ez galduren da») dela zuzena, eta Leizarragak Fray Bartolomerekin aitortzen bestetik hala behar duela, gorago ikusi ditugun (126) (127) haietan ez bezala. Lehenak «...ez iruten duté» eta «...ez...denuntiatu dic» idatzi du, izan ere, eta bigarrenak «...ez guztiac dira chaarrac...». Azken honetan adizkia ez da perifrastikoa, egia; baina egia ere *ez*-ek ez duela adizki soil hori bereganatu. Ez dio, alegia, «...ez dira guztiac chaarrac...»

17. Fray Bartolome, *Euscal errijetaco olgueeta...*, 17. or.

11. Egungo egunean ere horrelako esanmoldeek bizirik dirautela esan dugu eta hala da. Agian, beste esapide asko bezala, gazteek gutxiago erabiltzen dituzte, baina helduen ahotik entzun daitezke oraino —neronek entzun ditut— honako hauek:

- (140) «Ez berak lorik egin dik eta ez besteri egiten utzi»
- (141) «Ez berak lanik egiten dik eta ez bestek egiterik nahi»
- (142) «Ez lorik egin diat eta ez telebistako partidua ikusi»

Berriro diot: inoren gramatikan ez da, nik dakidala, esanmolde honen berri ematen eta hemen ematea merezi zuela uste dut. Hau ere bai berriro: ikasleak ez dira batbatean ohartu ohi, arbelean Etxepareren (125) eta (128) idatzirik ezarri eta gaztelerara itzul dezaten eskatzen zaienean, bien arteko bereizkuntza. Batbatean biak «No...ni...» itzuli ohi dituzte. Baina «biak berdinak dira, hortaz» esan orduko, zuzendu ohi dute itzulpena eta bigarrena «Ni... ni...» aldatzen, barne senak irakatsirik, noski, eta artean konturatu gabe zertan datzan formazko alde edo diferentzia.

12. Etxepareren «Ez galdu da ez galduren...» haren eta, ikusi dugunez, horren antzeko beste idazle gehiagoren eta herri soilaren esaldien ereduaz gain, badugu horixe bera esateko beste modu bat ere, mendebaldeko euskalkietan bederen bizirik dagoena. Honetan datza: eredu horretan bezala bigarren perpaus zatian ezabatu beharrean, lehenean ezabatzen da adizki laguntzailea. Esate baterako:

- (143) Ez joan eta ez etorri da
Ez jan eta ez edan du

Gauza bera gertatzen da adizkia perifrastikoa gabe loturazkoa denean:

- (144) Ez okela eta ez arraina da
Ez harra eta ez emea da
«Ez zuri ta ez beltz da»

Azken hau esan zidan lehengoan hitzetik hortzera emakume zahar batek nik «No es ni blanco ni negro» euskaraz nola esango zukeen galdegin orduko. Fray Bartolomegan ere aurkitu dut honelako bat:

- (145) «Pasiua berez ez ona ta ez chaarra da»¹⁸

13. Honek lehen (I, 18, 19) dindilika utzi dugun beste puntu bat biribiltzeko bide ematen digu. Han esan dugu *eta*-k bi baiezko perpaus uztartzen dituenen bataren nahiz bestearen adizki laguntzailearen ezabaketa onartzen duela, baina perpausak ezezkoak direnean gauzak nahasiago direla. Alegia, honako perpaus hau

- (146) Ogia jan du eta ardoa edan du

bi modu hauetara alda daiteke:

18. Fray Bartolome, hor berean, 31. or.

(147) Ogia jan du eta ardoa edan

(148) Ogia jan eta ardoa edan du

Ikus, ordea, zer gertatzen den ezezkoekin. Hauek bi motatakoak dira eta desberdinak dira batak eta besteak onartzen dituzten adizki ezabaketak. Hona bi motak:

(149) Ez du ogirik jan eta ez du ardorik edan

(150) Ez ogirik jan du eta ez ardorik edan du

Bigarrena enfatiko da, gazteleraz «ni... ni...» esan ohi dena; lehena, al-diz, «no... ni...». Lehenak onartzen du bigarren perpaus zatiaren adizki ezabaketa eta honela alda daiteke:

(151) Ez du ogirik jan eta ez ardorik edan

Ez, ordea, lehen perpaus zatiaren adizkiarena, baldin aldi berean bigarrenarena lekuz aldatzen ez bada. Beraz agramatikala da honako hau:

(152) *Ez ogirik jan eta ez du ardorik edan

Baina bigarrenarena lekuz aldatzen bada eta esaten

(153) Ez ogirik jan eta ez ardorik edan du

orduan hori ez da gehiago lehen motakoa, baizik bigarren motakotzat eman dugunaren eremuan sartzen da. Hots, honen eremuan:

(154) Ez ogirik jan du eta ez ardorik edan du

Honek, izan ere, lehen motakoak ez bezala, bi aldaera onartzen ditu, adizkia lehen perpaus zatian nahiz bigarreanean ezabatuz:

(155) Ez ogirik jan eta ez ardorik edan du

(156) Ez ogirik jan du eta ez ardorik edan

14. Ohar zaitetz baiezkoen eta ezezkoen arteko beste bereizkuntza batez. Haietan *eta* da, nolazpait esateko, ezabaketa eragiten duena edo onartzen; *eta* bera ezin daiteke ezabatu, ostera ez lirateke gehiago bi perpaus kopulatibo izango. Ezezkoetan, berriz, *eta* ken daiteke eta kopulatibo izaten jarraitu bi perpausak.

Beraz, ezezko hiru aldaerak biltzen dituen eskema honela eman dezakegu:

(157) *S ez X Pr X (eta) ez Pr X*

non S sujetoa eta Pr predikatua delarik, adizkia den X horko hiru leku horietako edozeinetan ager baitaiteke. Alegia,

(158) Pasiua ez da ona (eta) ez chaarra

Pasiua ez ona da (eta) ez chaarra

Pasiua ez ona (eta) ez chaarra da

Berebat adizkia perifrastikoa baldin bada, partizipioak predikatuaren lekua harturik:

- (159) Ez da galdu (eta) ez galduren çure gomenducoric
 Ez galdu da (eta) ez galduren ...
 Ez galdu (eta) ez galduren da ...

15. Orain bada, lan honen irakurlea ohartu da honez gero hiru eredu horietarik hirugarrena dela Fray Bartolomek bere pasarte hartan (145) erabili duena; bigarrena dela Etxeparek beste hartan (128) irakatsi diguna; lehena, berriz, Etxeparek berak goragoko bestean (125) hautatu duena.

VI. BAI ETA... (ERE)

1. Aurreko orrialdeetan garbi gelditu da *ez X + ez Y* adierazteko euskaraz *eta ez ere* ez direla beharrezko; nahitaezkoa dela *ez*, ordea, lehen perpaus zatian, «(bai) eta edota eta (bai) bigarrenean (ere)». Gure azken hitzok aski erakusten dute, aldiz, *bai X + bai Y* esan daitekeela *bai* behin ere agertu gabe, aski bait da lehen perpaus zatia baiezkota izan dadin (eta horretarako ez da *bai*-ren beharrik) eta bigarrena gure horko «(bai) eta edota eta (bai) bigarrenean (ere)» horretan ageri diren era guzietara esan bait daiteke; *bai* gabe ere bai, beraz. Hitz batean, badirudi *bai eta, eta bai* nekezago aurkitzen direla edozein liburutan *ez eta, eta ez* baino. Guri hala gertatu zaigu bederen.

2. Ez dakigu zergatik, horregatik ala bestegatik, Leizarragaren itzulpenetan doi-doi aurkitzen da *bai eta*. Guk lau Ebanjelioak miatu ditugu eta oso gutxi aurkitu. San Mateorenean eta San Lukasenean ez da alerik ageri. Honenean behin (XI, 38) «Baita Phariseuac...» irakurtzen da, baina hutsegitea da, eta horren lekuan «Baina...» behar du, «Pharisaeus autem...» dioelako latinezkoak eta Leizarragak *baieta* edo *bayeta* idatziko zukeelako, *ez baita*. San Markos eta San Juanenak bana baizik ez dute. San Markosena (XII, 44), gainera, Leizarragaren beraren hitzez esateko, «textuan aditzen diraden» eta «deklaragarri iarriac» omen diren horietakoa da; hots, latinezkoan hitz kiderik ez duena. San Juanena bakar bakarrik gelditzen zaigu, beraz: IV, 36.

San Juanek honela dio latinez:

- (160) «...ut, et qui seminat, simul gaudeat, et qui metit»

Eta Leizarragak honela:

- (161) «...ereiten duenac bozcario duençát, bayeta biltzen duenac-ere»

3. Leizarragaren itzulpenetan, lau Ebanjelioenetan bederen –horiek bakarrik miatu bait ditugu–, doi-doi aurkitzen dela *bai eta* esan dugu. Bere baitarik idatzi zituenetan, berriz, maixko darabil. hona lau pasarte:

- (162) «...edificacione handitan predicatzen baita, baieta disciplina... obseruatzen»
 (163) «...nic orain aippatu ditudanac, bayeta... launaren exhortatione handiac...»
 (164) «...eta ikussiric ecen occasionea presentatzen cela, bayeta sperañaz ecen...»
 (165) «...eçarri ukan dudan ...penaz, bayeta hunetariç ethor ahal daitequeen...»

Lau pasarte hauek Ioanna Albrete erreginari egin itzulpenaren eskaintzan ageri dira. San Mateoren ebanjelioan *bai eta*, esan bezala, ez, baina horren ordeztu edo, beste honako hau darabilela ohartu gara, *etare*, perpausaren hasieran, gainera. Hona biak:

- (166) «Etare çuen buruco bilo guciac contatuac dirade» (X, 30)
 (167) «Etare badiotsuet, ecen Sodomacoac...» (XI, 24)

Gauza batek harritzen gaitu bi azkenotan: latinez Vulgatak *autem eta verumtamen* adbersatiboak dakartza eta Leizarragak, ikusten denez, *etare*.

4. Leizarragaren pasarte guziotan *bai eta* dugu *ere* gabe, edota *eta (e)re*, baina *bai* gabe; ez ordea, *bai eta ere* hirurak batera. Etxeparek aitzitik *baietare* dio zazpi bertsoetan: I, 16; I, 69; I, 194; I, 267; I, 344; I, 356; IX, 19. Hona lehena eta azkena:

- (168) «Bayetare beqhatuyac punicione segurqui»
 (169) «Guiçonac duyen maytena, bayetare hobena»

Bai soilik *ere* erabiltzen du, kopulatibo gisa noski, baina hori geroko beste kapitulu bati dagokio eta han aztertuko dugu, lehen *ez* bezala. *Ere* gabe *bai eta*, Leizarragak bezala, inoiz ez.

5. Axularrek *ere* ez behin *ere*: *ez ere* duela eta *ez ere* gabe. Ongi zioen, beraz, Aita Villasantek hau idatzi zuenean:

- (170) «Lo que nunca se encuentra en Ax. es el *Bai eta (o Baita) ere*, que usan otros autores. El recurre en todo caso a *Halaber* 'asimismo', 'igualmente', 'también...»¹⁹

Darabilten beste autoreen artean aipamen berezia merezi du, lehengoz gain, Ziburuko Etxeberriek, hau eta Axular, jakina denez, euskalki bereko, garai bereko eta eskola bereko kideak bait ziren eta horrenbestez harrigarriago bait da Axularrek *bai eta* sekulan ez erabiltzea. Haren *Manual Devotionezcoa*-ren lehen zatian honako hauek irakur ditzakegu, besteak beste:

- (171) «Baita çu spiritua halaber duda gabe» (144. b.)
 (172) «Baita premian deçagun pietosqui fauora» (213. b.)
 (173) «Baita consola deçagun gaitz handiac hartua» (241. b.)
 (174) «Bai eta seguragorcen sainduen erresumaz» (386. b.)

Eta horien antzeko beste dozena bat, gutxi gorabehera. Horiko lau horietan eta gainerako guzietan, behin izan ezik, *bai (e)ta* beti *ere* gabe darabil. *Ere* duelarik, behin; baina ez Etxeparek bezala *bai (e)ta*-ri itsatsirik, baizik tartean beste hitz bat sarturik. Ikus,

- (175) «Suet huni çuc indaçu indar iarraiquitceco, Baita mihia ere treue moldez hitz eguiteco» (1161-2. b.)

6. «El recurre en todo caso a *Halaber*» esan digu Axularrez Aita Villasantek. Baina ez dugu garbi ikusten hori *bai eta*-ren ordaina denik, ez Aita Villasantek

19. L. Villasanté, *Sintaxis de la oración compuesta*, 18. or.

hori esan nahi duenik. Edozeinek har dezake gehigarri gisa *halaber*, *bai eta*-k ere bai (ikus Ziburuko Etxeberrirena, 171); Axularrengan berarengan *eta bai*-k berak ere bai. Ikus honengan *Eta bai halaber...*, hiru hizkiak segidan, gutxienez hiru pasartetan: 158, 263, 351 zenbakietan. Horietan *halaber* gehienez ere, *ere*-ren ordaina edo parekoa iruditzen zaigu.

Ziburuko Etxeberrigan orobat *baita... halaber...*, *bai halaber...* aurkitzen ditugu, eta horien ondoan *baita...*, *bai...* ere bai, *halaber* gabe. Eta, jakina, bera bakarrik ere bai, Aita Villasantek egozten dion zentzuarekin:

- (176) «Gloria eta laudorio Aita Semearentzat, *halaber* bereziki Aita Santuari
Halaber biz (Spiritu amulsua) çuretçat» (977-8. b.)

Ez dago haatik auzia hain garbi eta Leizarragagan bederen *bayeta*-ren ordaina dela dirudi batzuetan edo oso kidea. Ikus pasarte hauek:

- (177) «Baina orain mulsa duenac, har beça, halaber maleta-ere» (Lk., XXII, 36)
(118) «Cergatic Ioannesen discipuluéc barur eguiten dute..., halaber Pharißeuenec-ere, baina...?» (Lk., V, 33)

Latinez bi pasarteetan «similiter et...» dator. Horiek horrela direla, *ez bai eta*-ren *ere*-ren ordain zehatza *ez dela halaber* esango nuke, baizik haien bien antzekoa.

7. Leizarragaren *ez eta*-ri beste itzultzaileetan zer zegokion ikasteko San Mateoren pasartearekin egin duguna (II, 3) egiten badugu orain haren beraren *bayeta*-ri gainerako itzultzaileetan zer dagokion jakiteko San Joanenarekin (ikus 131), egundainoko ustekabeak hartuko gaitu. Hemen ez dugu inondik ere San Mateoren hartako batasunik edo kideasunik aurkituko. Nor bere gisara dabil. Arrazoia arestian seinatu duguna da, gure ustez: hots, *bai X + bai Y* ereduaren bigarren zatia *bai* gabe eta, noski, *ere* gabe esan daitekeela. Bestela esan: ...+ *ez Y*. bezain markatua *ez dela* ezekin hizkuntzatan ...+ *bai Y*. Ikus ezperen nola euskaratu duten honako hauek Leizarragak honela zioena (161):

- (179) «...ereiten duenac bozcario duençat, bayeta biltzen duenac-ere»

Haraneder: «...ereiten duena bozcario dadintçat bai eta biltcen duena ere»

Lizarraga: «...goza-daitzen bateo eraiquitzén-duéna, ta iguitatzen-duéna»

Duvoisin: «...eraileak eta biltzaileak,, biek batean har dezaten bozcario»

Trin. Bible Soc.: «...ereiten duenac bozcario duençat bayeta biltzen duénac ere»

Olabide: «...ereilea ta itailaria orobat poz daitezán»

Kerexeta: «...orrela, ereillea ta igitaria bardin poztuten dirá»

Olariaga: «...ereilea ta itaiaria batean poz daitezén»

Gotzaiak: «...ereilea eta igitaria, biak batera poz daitezén»

Eliz, art. Biblia: «...nola ereilea hala igitaria biak goza daitezén»

Haraneder eta Trinitarian Bible Society bat datoz erabat Leizarragarenarekin: hirurek *bai eta... ere* dioté. Gainerako guziek *eta* soilez eman dute, latinezko «et... et...» guziz gezatuz; azkenak «nola... hala...» erabili du:

Eta horren ondoan beste San Pabloren hura «Si autem filii, et heredes» (Erromat. VIII, 17) har badezagu, Leizarragak honela demagula ikusiko dugu:

«..., bayeta heredero»; aldiz Haranederrek eta Duvoisinek «halaber heredero (ondare) gare», eta Olariagak, Gotzaiek eta Elizen arteko Bibliak Leizarragak bezala, *ere* erantsirik: «baita oinordeko ere»; Oñabidek horixe bera *baita* gabe eta Orixek: «Seme ba'gera, oiñordeko».

8. Eta ezin uka, halere, berez *ez X + ez Y*-rentzat metatu ditugun hamasei formen antzeko guziak lirakeela *bai X + bai Y*-rentzat ere jatorrak. Ipin ditzagun hemen Ebanjelioak dioena aldatuz, «Magister est super discipulum, et etiam dominus super servum suum», euskaraz esateko ditugun lehengo hamasei modu haien kideak:

- A. a. *bai eta ere* nagusia morroia baino gehiago
- b. *bai eta* nagusia *ere* morroia baino gehiago
- c. *bai eta* nagusia morroia baino gehiago *ere*
- d. *bai eta* nagusia morroia baino gehiago.
- B. a. *eta bai ere* nagusia morroia baino gehiago
- b. *eta bai* nagusia *ere* morroia baino gehiago
- c. *eta bai* nagusia morroia baino gehiago *ere*
- d. *eta bai* nagusia morroia baino gehiago.
- C. a. *eta* nagusia *ere bai* morroia baino gehiago
- b. *eta* nagusia morroia baino gehiago *ere bai*
- D. a. *bai ere* nagusia morroia baino gehiago
- b. *bai* nagusia *ere* morroia baino gehiago
- c. *bai* nagusia morroia baino gehiago *ere*
- d. *bai* nagusia morroia baino gehiago.
- E. a. nagusia *ere bai* morroia baino gehiago
- b. nagusia morroia baino gehiago *ere bai*

9. Lehen ezezko hamasei era haien ondoan egin ditugun ohar berberak (ikus II, 8-13) berregin behar genituzke hemen. Irakur han berriro. Bat bakarra erantsiko diegu han esanei: hango eta hemengo C. eta E. sailak kideak dira, baina badute alde txiki bat; hangoei *ez* ezin ken dakieke, hemengoei *bai*, aldiz, *bai*. Honetaz halere gero mintzatuko gara, *ere* soilaz aritzerakoan.

VII. ETA BAI... (ERE)

1. Hau da, berriro esan, Axularrek darabilen bakarra, Etxeparek ostera inoiz ez darabilena eta Leizarragagan ez Ziburuko Etxeberrigan guk bederen aurkitu ez duguna. *Bai eta* gabe beti, esan bezala, *eta bai* darabilenez gero, alde zuretik balirudike azken honek bere kide *eta ez*-ek baino maizago agertu behar lukeela Axularrengan, honi *ez eta*-k leku pixka bat jaten bait dio. Ez da hala, haatik. Liburu osoko *eta bai* guziak ehun eta bost baino gehiago ez dira; *eta ez* baino askoz gutxiago, lehen esan bezala. Honek beronek lehen guk esanari (ikus VI, 1. eta 7.) arrazoi ematen diola esan behar.

Bi eratakoak dira, gainera, *eta ez*-ak ere ziren bezalaxe. Batzu -gehienak- guri orain dagozkigun *bai X + bai Y* erakoak; beste gutxi batzu *ez X + bai Y* tankerakoak. Utz ditzagun hauek gerorako.

2. Ia denak *bai X + bai Y* erakoak dira. Eta badute, horratio, *eta bairen* bidez ematen dituen guzi guziek bere ezezko *eta ez* kideek beti ez zuten zertxobait: batiere salbuespenik gabe *eta bai* beti *ere*-z indarturik ageri da, nahiz beti ere bereiz eta urrun ageri den *ere* hori *eta bai*-gandik. Ikus adibide batzu:

- (180) «...izatu dira...leial frogatuak. Eta bai egiazko fedearen... buruzagiak ere» (3. zb.)
 (181) «Anhitzetan egiten derakute etsaiek..., eta bai batzutan gehiago ere» (16. zb.)
 (182) «...fintzen direla, eta bai alfer eta geldi egoiteaz ere galtzen» (23. zb.)
 (183) «...lekhuan gelditzen da, eta bai edireiten ere»
 (184) «...zenbat parabisurako diren, eta bai zenbat ifernurako diren ere» (74. zb.)

Honelako laurogeitamaika kontatu ditugu. Ehun eta bost arterainoko beste guziak hona zeintzu eta nolakoak diren.

3. Ezezkoetan inoiz ez darabilela esan dugun (ikus III, 8) eredua ageri da Axularren baiezkoetan. Hots, *eta ez...* (*ere*)-ren ondoan inoiz ez darabil *eta ...ere ez*, bai, ordea, nahiz bospasei aldiz bakarrik, *eta... ere bai*. Hona guziak:

- (185) «...nola duten bere athal zaina, eta behar ere bai (21. zb.)
 (186) «...gozatu nahiko duela? Eta erranen ere bai bere baitan...» (165. zb.)
 (187) «Ikhusiko duzu gizon gazte bat... eta... zenbait zahar ere bai...» (331. zb.)
 (188) «Halatan galdegiten du, eta ihardesten ere bai, San Gregoriok... (341. zb.)
 (189) «...dudatuko du zenbaitek eta erranen ere bai nolatan...» (373. zb.)

Horien antzekoa da, *eta* gabe esana, beste hau ere:

190. «...bekhatu egiten duzunean, beldur zara, bigarreanean ere bai; ordea...» (71. zb.)

Guziok gero *ere* soilaz aritzean esango dugunarekin zerrikusi handia dute. Beste itxura dute, berriz, han berean (ikus III, 8) esan bezala, honako beste hauek:

- (191) «...bertze guztietarik bai baiña haren fruitutik etzezala ian...» (38. zb.)
 (192) «Eta lehenbiziko bekhatuaren egitera ere bai, baiña guztiz ere...» (77. zb.)
 (193) «Zahartasuna bertze anhitz gauzatakoko ere bai, baiña guztien gaiñetik...» (127. zb.)

Hauek funtsean adbersatiboak direla esan dugu han.

4. Azkenik *ez X + bai Y* tankerakoak bakarrik gelditzen zaizkigu. Bi baizik ez dugu aurkitu liburu osoan. Hona biak:

- (194) «Gauza errazean etzara fidatzen, eta bai gaitzean» (97. zb.)
 (195) «Zeren berea ez baitu debeku, eta bai bere ezтуena...» (238. zb.)

Honelakoetan *ere* ezina da, noski, horretarako lehen perpaus zatiak ere baiezkoa izan behar bait luke. Aldiz *eta* ez da beharrezko, Etxepareren honetan ikus dezakegunez:

196. Hequi ecin medra nayte, bay gal neure arima» (XII, 55)

Azken hamaika hauei gorago aipaturiko (ikus VI, 6) hiru *Eta bai balaber...* haiek berretzen badizkiegu, garbi ageri da lehen esana: Axularrek *eta bai* darabilenoro, salbuespenik gabe, *ere*-z indarturik darabil.

VIII. BAI

1. Lehen *ez X + ez Y*-ren bigarren perpaus zatia adierazteko *ez* aski dela ikusi dugun bezalaxe, *bai X + bai Y*-rena adierazteko ere *bai* soila aski da. Eta hau lehen baieztatu dugunaren kontraesana ez da inola ere. *Bai* beharrezko ez dela aitortu bait dugu lehen eta orain horri berretzen beharrezko ez baina erabiltzekotan bera bakarrik aski dela. Arestian eskaini dugun hamaseiko hartarik *D.d.* litzateke diogunaren eredia.

2. Exenpluak aurkitzen egungo idazleetan, mendebalekoetan batez ere, *ez* dugu uste hain erraz denik. Izen sintagmak elkartzeko *bai*, noski, errazago. Esate baterako, honelakoak aurki daitezke han-hemenka:

(197) Goizean bai arratsean egiten du otoitz

Hauek halere maizenik *bai* errepikatuz eman ohi ditugu, orduan distributiboen kide bihurtzen direlarik, Etxepareren honetan bezala:

(198) «Bay bician bay hilian bethi oha galduya» (II, 67)

Diogun bidenabar kopulatibo eta distributibo batzu elkarren ahaide hurbil direla, bere lekuan agertuko dugunez. Eta euskaraz bakarrik *ez*, noski; aski bedi hemen latinezko «et... et...» gogoraztea, lehen Leizarragaren pasarte batean (160) agertu bait zaigu.

Bigarren perpaus zatian bakarrean *bai* dutenak, ordea, bakan agertzen dira, edota *ez* dutenak baino bakanago bederen. Ohar zaituz aurreko orrialdeetan aldatu ditugun Leizarragaren eta beste itzultzaileen euskarapenetan (VI, 7) *ez* zaigula behin ere horrelakorik agertu; *bai*, aldiz, horien beren *ez X + ez Y*-ren itzulpenetan (II, 3) *ez* soilarenik.

3. Etxeparek bi pasarte ditu gure ustez hemen diogunaren adibide direnak. Lehena garbia, dudagabea; bigarrena ilunagoa, zeinen zentzu zehatza ez bait da hain argia. Ikus ditzagun biak. Lehenak honela dio; hezur muina bakarrik hemen aldatzen dugularik argi beharrez:

(199) «Eta orduyan çuc ydaçu indar eta gracia

... vqheyteco ...

... eguiteco ...

Neure beqhatuyez oroz dudan varqhamenduya

Bay dignequi errecebi çure gorpuz saynduya

Bayetare...» (I, 64-69)

Sei bertso tako ahapaldia da; Etxeparerenetan luzeena. Guretzat gauza nabaria da horko boskarren bertsoa guk *bai eta*-ren bidez komunzki emango genukeenaren pareko dela, eta Akesolok «Y recibir dignamente...» itzuli zuen arren, Lafon zehatzago izan zela «Et aussi pour recevoir...» frantseseratu zuenean.

4. Bigarren pasarteak honela dio:

(200) «çuyec vqhen baytuçuye heçaz guti ansiâ

Bay erhoqui conplacitu ene contra exaya» (I, 354-5)

Lehena ahapaldi baten azken bertsoa eta bigarrena hurrengoaren lehena delako batetik, lehenak adizkiari kausala dirudien *bait*-txertatu diolako bestetik,

baiezko perpaus nagusia baizik ez delarik, eta azkenik lehenak bere baitan, «guti ansia» dela bide, ezezko kontzeptua adierazten duela dirudielako, gogor samar egiten zaio irakurleari hor *bai X + bai Y* eredua ikustea. Halaz ere, Akesolok «Y, al contrario, habéis dado...» eta Lafonek «Mais vous avez eu la folie de...» itzultzen duten arren, guretzat *bay* hori guk gaur *bai eta* esango genukeenaren gisako da eta itzulpena hau: «Vosotros habéis mostrado escaso interés por ellos y habéis complacido *además* al enemigo locamente contra mí».

5. Ziburuko Etxeberrik aukera joriagoa eskaintzen digu, *bai* soilak bigarren perpaus zatian bakarrik agerturik izen sintagmak nahiz aditz sintagmak elkartzen dituelarik. Hona esenplu batzu:

- (201) «Gure bekhatuec behar çuten punimendua
cure bai sainduen dela mereciz pagatua» (511-2)

Hots, zure mereziz bai eta sainduen mereziz.

- (202) «Halaber iustitiaren indaçu ontassuna
Bay nequeei eguiteco buru gogortassuna» (919-20)

Hots, indazu iustiziaren ontasuna, bai eta gogortasuna nekeei buru egiteko. Ez, noski, buru-gogortasuna.

- (203) Eta nola itsassoac barkha miragarriei
eraguiten baitaroe lançada bai ttipiei» (1081-2)

Hots, barka miragarriei bai eta ttipiei.

Ikus orain aditz sintagmak loturik nola ageri den besteotan:

- (204) Gosse gaitceec edo egarric daramana hobira
nahi duçu deit deçagun gueure barazquarira,
Bai atheco probeari demogun ostatua
eta... (249-252)

Garbi dago bi gauza nahi dituela Jainkoak: bata deit dezagun, bai eta besteari demogun ostatua.

- (205) «Bide hassian sartcen da ahal beçain barrena,
bai Aingueruac trauatcen ahalic guehiena» (1423-4)

Hemen ere gauza bera: deabrua ahal bezain barrena sartzen da, bai eta ainguruak trabatzen ahalik gehiena.

IX. +ERE (bizk. BERE)

1. Oraino *ere* bere baitan zuten, hobeki esan, izan zezaketen hizki multzo kopulatiboak aztertu ditugu. Hauek ezabaketa prozeduraren ondorio direla esan dugu (ikus II, 1-2). Iker dezagun orain *ere* bera, hiru hizkiz osaturiko multzo haietarik beste biak galdu eta *ere* bakarra gelditu bait daiteke.

Har ditzagun abiapuntu gisa bi perpaus haiek:

- (206) Mirenek sagarrak erosi ditu
 (227) Gorkak sagarrak erosi ditu

Han esan bezala, lehen perpausa osorik gorde eta hari bigarrena, bien arteko osagai komunak ezabaturik, erantsiz sortu zaizkigu multzo kopulatibo haiek:

- ... eta bai Gorkak ere
 ... bai eta Gorkak ere
 ... eta Gorkak ere bai

Horietan aditz sintagma osoa ezabatu da.

2. Baina hori egin ordeztu aditz sintagmaren aditza bakarrik gorde nahi bada gainerakoak ezabatuz, orduan honela esan daiteke soilik:

- (208) (eta) Gorkak ere erosi ditu

Hor *ere* bakarrik gelditu zaigu eta hau lehenengo hiru hizki multzoekin erkatzen badugu, garbiri ikusiko dugu adizkiaren hutsunea betetzen duela *bai* hizkiak. Bestela esan: *bai* ezartzen bada, ez da aditz sintagmaren beharrik, eta alderantziz aditz sintagma sartzen bada, ez da *bai*-ren beharrik.

Agian norbaitek esango du are batoren ez bestearen beharrik ez dela, biak ezaba daitezkeela eta soilik esan

- (209) Gorkak ere

Honezaz geroxeago mintzatuko gara.

3. Ezezko perpausetan gauza bertsua gertatzen da. Inork honela baldin badio

- (210) Mirenek ez du sagarrak erosi

eta Gorkak gauza bera egin duela, hobeki esan, egin gabe utzi duela, horri gero erantsi nahi, esan dezake soilik:

- (211) (eta) Gorkak ere ez du erosi

Hauetan, perpausa ezezkoa denez gero, aditz sintagmak *ez* nahitaezkoa da, baina hemen ere *eta ez / ez eta* haien beharrik ez da. Diogun hortaz berriro: aditza berresaten denean, *ere* aski da, beste bi hizkiak galeraziz.

Geroxeago ikusiko ere dugu azken hori honela esan daitekeen ala ez

- (212) Gorkak ere

4. Bistan dago *ere*-k «lehenaz gain bestea» adierazten duela; hots, lehen aipatuaz gain beste norbait, zerbait, noizbait, nonbait eta abar. Esate baterako, inork esaten badu

- (213) Nik ere badakit

suposatzen du beste norbaitek badakiela lehen esan dela. Honako beste hau esaten badu

(214) Liburua ere erosi du

beste zerbait erosi duela lehen baieztatu dela. Berebat hau dioenak

(215) Gaur ere etorri da

atzo edo beste noizbait etorri zela lehen adierazi dela. Orobat honako hau

(216) Tabernan ere ikusi dugu

inork esan dezake, baldin beste nonbait ikusi dutela lehen aitortu bada. Eta abar.

5. Perpausaren zein osagaik hartzen du beraz *ere*? Abia gaitezen, esate baterako, perpaus honetatik:

(217) Amak semeari dirua agindu dio

Hiru osagai ditugu hor; lau, hobeki esan, baina laugarrena geroko utziko dugu. Hori entzun eta «amak ez ezik aitak» erantsi nahi badiozu hori esan duenari, lehena honela osa dezakezu:

(218) Aitak ere (semeari dirua) agindu dio

«Semeari ez ezik alabari» gaineratu nahi badiozu, honela:

(219) (Amak) alabari ere (dirua) agindu dio

«Dirua ez ezik autoa» berretu nahi badiozu, honela:

(220) (Amak semeari) autoa ere agindu dio

Beraz, garbi dago zein osagaik hartu behar duen *ere*: lehen norbaitek esana osatuz indartu –azken batean *markatu*– nahi duzunak. Guziotan kako artean ezarri ditugun hitzak ez ezik adizkia ere ezabatu nahi baduzu («agindu dio», alegia), *bai* ipini behar duzu, lehen esan dugunez. Guk hemendik aurrera hala egingo dugu labur beharrez.

6. Ezabaketa prozedura guziak ez dira, haatik, horietan gertatzen direnak bezain ximpleak. Ikus hau:

(221) Mirenek sagarrak erosi ditu

(222) Gorkak sagarrak eta udareak erosi ditu

Horiek honela bil daitezke adizkiaren ordeztan *bai* esanik:

(223) Mirenek sagarrak erosi ditu eta Gorkak udareak ere bai

Eta, jakina, beste bi modu haietara: ...*eta bai Gorkak udareak ere; ...bai eta Gorkak udareak ere*. Lot gakizkion, ordea, forma bati, guk hemen esan nahi duguna hiruretan modu berean beteizen bait da. Konturatzen zarenez, bilketa honetan *udareak* ezin ezabatu izan da, Mirenek ez bait du udarerik erosi. Aldi berean, ordea, ohartuko ere zara ez dugula esan eta ezin esan genezakeela

(224) Mirenek sagarrak erosi ditu eta Gorkak ere bai udareak

Gorkak ez ditu, izan ere, udareak bakarrik erosi. Egungo egunean, halere, euskaldun gazte askok hori honela ahozkaturik ematen du eta ustez adierazten Gorkak udareak ere erosi dituela:

(225) ... eta Gorkak / ere bai udareak

Ahozkerak horrek, haatik, euskararen legea urratzen du, *ere* geroxeago esango dugunez, beti enklitikoa bait da.

7. Ikus orain beste hau:

(226) Mirenek sagarrak erosi ditu

(227) Gorkak udareak erosi ditu

Garbi dago biok ezin bil daitezkeela, lehengo bien gisa (223), honela:

(228) Mirenek sagarrak erosi ditu eta Gorkak udareak ere bai

Gorkak ez bait du oraingo honetan sagarrak erosi. Bai, ordea, beste era honetara:

(229) Mirenek sagarrak erosi ditu eta Gorkak ere bai / udareak

Azken honen antzekoak txitian pitian esan ohi ditugu egunoroko hizkeran. Inork esaten badit,

(230) Zuk neri ogia kendu didazu

nik erantzun diezaioket

(231) Zuk ere bai neri esnea

8. Guziona eguzki argia bezain nabaria dirudien arren, arazo txiki bat mahai gaineratzen digu. Hor esana beti egia bada, honako biok beti desberdinak dira:

(232) Gorkak udareak ere bai

(233) Gorkak ere bai / udareak

Lehenak esan nahiko luke Gorkak *udareak ere* erosi dituela; beraz sagarrak ere bai. Bigarrenak, aldiz, *Gorkak ere* erosi dituela; beraz Mirenek bakarrik ez, nahiz batak udareak eta besteak sagarrak erosi izan. Ohar gaitetzen bi horietarik lehenaren zentzua bakarrik dela arazoa sortzen diguna, bigarrenaren garbi bait dago Gorkak udareak bakarrik erosi dituela.

Lehenaren arazoa hau da: ...*udareak ere bai* diogunez gero, *sagarrak ere* erosi al ditu? Gorkaren kasuan garbi dago baietz, hala bait zioen bigarren perpausak (222). Baina erabat mintzaturik,

(234) X-k Y ere bai

dioenak nahitaez esan nahi al du X-k Y ez ezik aurrean esandako Z ere ikusi, jo, ekarri eta abar duela?

9. Ezetz uste dugu. Alegia, gure ustea da horko bi horiek (232, 233) ez direla beti eta nahitaez zentzu desberdinekoak. Bi eratara frogatuko dugu hau: bat, hori horrela balitz, ondorio itxuragabera eramango gintuzke; bi, perpaus hori (232) beste modu batera ere irakur daiteke.

Ikus dezagun lehenik zein ondoriotara eramango gintuzkeen lege horrek eta horretarako har dezagun perpaus luzexeagoa:

(235) Yon gaur mendira amarekin joan da

Inork hori honela osatzen badu,

(236) Mikel ere bai atzo

lehengo (233) haren parekoa da hori eta, esan bezala, horrek ez du arazorik sortzen. Aldiz beste hau baldin badio

(237) Mikel atzo ere bai

biak desberdinak direla uste duenak azken honen esanahia hau dela esan beharko luke: «Atzo ere bai? Hortaz, Yon bezala, gaur ere bai; gaur eta atzo, alegia».

Eta honela osatuko balu

(238) Mikel atzo elizara ere bai

Yon bezala gaur mendira, eta gaur mendira ez ezik, atzo ere mendira eta gero gainera elizara ere atzo amarekin joan zela adierazten al du?

Eta azkenik hau esango balu,

(239) Mikel atzo elizara aitarekin ere bai

gaur mendira amarekin, Yon bezala, eta atzo mendira ez ezik elizara ere bai, eta gainera amarekin ez ezik aitarekin ere joan zela adierazten al du? Ezina da hori, itxuragabea da, eta esplikazioa beste nonbait aurkitu behar da.

10. Gure ustez okerbidearen jatorria hemen datza. Har dezagun berriro arazoa duen perpausa eta haren antzeko nahi adina:

(240) Gorkak udareak ere bai
Mikel atzo ere bai
Nik zu ere bai

Azken honi lotuko gatzazkio, laburrena bera bait da. Noiz esango genuke perpaus hori? Esate baterako, norbaitek aurretik honelako zerbait esango baligu:

(241) Ikusi zaitut

Baina hori esango ligukeenari biotako edozein modutara erantzun geniezaioke, inolako dudarik gabe:

(242) Nik zu ere bai

(243) Nik ere bai zu

Ez dira, beraz, nahitaez desberdinak. Zergatik? Gure ustez honegatik: biotarik lehenak bi irakurketa onartzen ditu:

(244) Nik [zu ere] bai

batetik, eta honek ematen digu bide honen antzeko guzietan «zu ez ezik» beste norbait ere ikusi dugula esan nahi duela pentsatzeko. Baina aldi berean beste irakurketa ere badu:

(245) [Nik zu ere] bai

Alegia, «zuk ni» bezala «nik zu ere» ikusi zaitut. Bi osagai horien banakoa «nik zu»- azpimarratzen du *ere*-k eta ez *zu* bakarrik. Modu berean

(246) [Gorkak udareak ere] bai

(247) [Mikel Atzo ere] bai

Ahozkerak kontua, hitz andanak egiteko kontua da, beraz, azken batean. Biotako bat:

(248) X-k [Y ere] bai

(249) [X-k Y ere] bai

11 Gatozen gero aztertzeko utzi dugun laugarren osagaira. Eskuartean genuen perpausa hau zen:

(250) Amak semeari dirua agindu dio

Hori dioenari lehen beste osagaiak bezala orain laugarrena —adizkia bera— osatu edo zuzendu nahi dionak eta aditzera eman «agindu ez ezik eman» diola, era batean baino gehiagotan osa dezake:

(251) (eta) eman ere dio

(252) (eta) eman dio ere

(253) (eta) eman ere egin dio

(254) (eta) eman ere eman dio

Bi lehenak bakarrik dira funtsean desberdinak *ere*-ri gagozkiola; beste biak lehenaren aldaerak baizik ez dira, aditza bera galdegai denean hegoaldean erabiltzen ditugunak. Horiei adizki laguntzailea ken dakieke, lehen beste hiru osagaietara (ikus IX, 2) *ere* erantsi diegunean adizki osoa bezalaxe, honen ordez *bai* ipinirik. Baina han galdetu dugu: *bai* hori beharrezkoa al da ala esan daiteke

(255) Aitak ere
alabari ere
autoa ere
eman ere

lauroi azkenean *bai* gehitu gabe? Jakina, *bai* edota *ez*; perpausak ezezkoak baldin badira, orduan *ez*.

12. Ikusi dugu (III, 8.) Axularrek ez darabilela behin ere *eta... ere ez* bere baitan adizkirik ez duen sintagmatan; bai, ordea, batzuetan *eta... ere bai* (VII, 3.). Leizarragaren pasarte honek, bestalde, ezin hobeki erakusten digu *bai*-ren beharra aditzik gabeko sintagmetan. Honela dio:

(256) «Iauna, guri erraiten draucuc comparatione hori ala bay guciey-ere?» (Lk., XII, 41)

Ohar zaitetz guk ezarriko genukeen lekutik aldatu duela *bay*, baina hori da gutxiena: hark dioena eta gure «...ala guziei ere bai?» gauza bera dira funtsean. Ohar ere –eta hau interesgarriago da– Leizarragak *bay* hori «deklaragarri iarric» omen direnak bezala letra tipo bereziaz idatzirik dakarrela, alegia bere baitarik testuari gehitua duela, hori gabe esaera ongi ez balego edo motz gelditzen balitz bezala.

13. Hori horrela delarik ere, ezin uka *ere*, aurrean ez atzean *bai* edo *ez* gabe, azkenean dindilika uzteko guk baino ohitura handiagoa dutela ekialdeko idazleek. Hona beste askoren artean adibide batzu, Leizarraga eta Axularrengandik jasoak:

(257) Iauna, ez ene oinac solament, baina escuac-ere eta burua» (Leiz., Io. XII, 9)

(258) «Egia da, egin diteke juramentu zeruaz, lurraz, sainduetz, eta bertze kreaturez ere: ez ordea...» (Ax., 169. zb.)

Guk agian «... eskuak. ere bai...» eta «...bertze kreaturez ere bai» esango genuke komunzki. Idazle horien artean sartu behar da Mendiburu ere. Honek, perpauusak ezezkoak direnean, guk baiezkoiei *bai* bezala ezezkoiei azkenean erantsi ohi diegun *ez* gabe esaten ditu honako hauek eta hauen antzekoak, «Inor etorri al da?» edota «Inoiz joan al da?» bezalako galderei erantzutean:

(259) Nior ere
Nioiz ere

Mendebaleko euskalkietako hiztun helduoi belarrian min pixka bat ematen digute egungo egunean geure arteko haurrei ere hain sarri entzuten dizkiegun horrelako *bai* nahiz *ez* gabeko esaldiok. Jakitea komeni zaigu, halere, urrutirago gabe nafar askok, betidanik euskaraz mintzatu direnek ere, Mendiburuk bezalaxe, hala diotela egun ere.

14. Lehenxeago aipatu dugun (251) beste hark ere ematen digun bezalaxe:

(260) eta eman ere dio

Ez da hori guk esateko modua, izan ere. Mendebalekoen artean ezagunagoa da beste hau:

(261) eta eman dio ere

Baina gauza bera adierazten al dute? Puntu ukaezina da ekialdeko idazle zaharren artean lehena dela zabalduena, are bakarra esango nuke, zehazkiago ikertu behar litzatekeen arren. Ekar ditzagun adibide batzu. Hauek Leizarragarenak dira eta, egia esan, ez dut bestelakorik aurkitu:

(262) «...nola scribatzen, hala... pronuntiatzen-ere dirade» (*Euscaldunei*)

«...hala... guerla eguitera, nola eguin eta eguiten-ere baitraucaçu...» (Ioanna Albreteri egin kartan)
 «...has cedin laincoa haren beguitan hartzen eta (nola mereci-ere baitzuen)...» (*Batbederac iaquiteco...*, 33. lerroan)
 «...eta munduaren finerano hala içanen-ere da» (Hor berean, 553. lerroan)

Axularrek ere sorta joria eskaintzen digu. Hona ale batzu:

(263) «Eta hala erran bezala egin ere zuen» (34. zb.)

Azken hiru hitz horiek («... egin ere zuen») hor bezalaxe gehiagotan ere irakur daitezke haren liburuan: 61, 78, 80, 192... zenbakietan. Ikus beste hauek ere:

(264) «...edireiten da... bere onak bahitzen bezala, saltzen ere dituenik» (54. zb.)
 «...asko baita aditzera emaiteko, bizitzen bezala hiltzen ere dela» (144. zb.)
 «Gizonak zer ere ereiten baitu, hura biltzen ere du» (144. zb.)

Aldiz ez da inoiz Axularrengan honelakorik aurkitzen:

(265) ...egin zuen ere.

Izan ere, bere aurrean *ere*-k aditz perifrastikorik duenoro, batere salbuespenik gabe aurrizki edo atzizkiren bat du beti adizkiak. Bestela esan, «... noiz izanen ezten ere» (43. zb.) edo «... igurikiko zaikun ere» (75. zb.) eta horien antzekoak irakurtzen ditugu, bai, baina sekula ez, perpaus nagusiarena izanik, *ere* partizipioaren eta adizki laguntzailearen ondoan ezarririk.

Biok Elkanoko Lizarragarenak dira:

(266) «Alá aiságo delaríc, aguián izánen ere dá próchu yágo...»²⁰
 «...betetzendú arima graziaz... eta emáten ere dú gueróco gloriarén prenda»²¹

Beste hau Asteasuko Agirrerena:

(267) «... eta jan ere zuan beraquin»²²

15. Ohitura honek gure egunak arte dirauela aitortu behar dugu gainera. Argitara berria den *Jean Etxepare Mirikuaren (1877-1935) idazlanak* deritzan liburu xarmangarria eskuetarutzen badugu, maiz irakurri ahal izango ditugu hauen gisa-koak:

(268) «Ohartu ere ziren sahetsetik...» (28. or.)
 «Bizpahiruek arras ontsa egina ere zuten beren lana» (35. or.)
 «Aipatzen ere gintuen bizpalau herrietako haurrak...» (36. or.)
 «Hunek lagunduko ere du Etxeberry...» (42. or.)

20. Joaquin Lizarraga, *Doctrina Christioarén Cathechima*, 16. or.

21. Joaquin Lizarraga, *Ongui iltzen laguntzeco itzgaiak*, 88. or.

22. J. Baut. Agirre, *Eracusaldia*, ed. HORDAGO, 3. tomoa, 6. or.

Ekialdean ere, haatik, ohitura hori aldatzen hasia ote da? Xarriton adiskideak, liburuaren prestatzaile eta hitzaurregileak, honela bait dio aitzitik:

(269) «...Jean Etcheparek laguntza zerbait emaiten zion ere bere anaia... apezari»
(6. or.)

16. Horixe da, izan ere, mendebalekoon ohitura; berria, esango nuke. Zaharra goian aipaturiko (253, 254) beste hura bait da:

(270) ... esan ere, esan zion.
... esan ere egin zion.

eta are maizago erabilia, baina *bai* sarturik, honako hau, lehen esan bezala:

(271) ... esan ere bai.

Egungo egunetan, ordea, hizketan batikpat, maiz entzuten ditugu honelakoak:

(272) Etorri da ere
Egin du ere
Esan dio ere

Ia beti, halere, besterik adierazteko. Hots, beste norbaitez edo zerbaitez gainera *halakoa ere* etorri dela edo egin nahiz esan duela adierazteko, honela esan beharrean:

(273) Etorri da Txomin ere
Egin du hori ere
Esan dio bestea ere

Hori eta beste hau bereizi gabe: joan ez ezik etorri ere dela, agindu ez ezik egin, edo pentsatu ez ezik esan ere duela, Axularren lehengo esanplu haietan kontrajarriak ageri diren bezala *erran* eta *egin*, *bahitzen* eta *saltzen*, *bizitzen* eta *hiltzen* eta abar, aditzak berak galdegai direnez gero.

17. Esanak esan, diogun argiro *ere* aski mugikorra eta labaina dela eta maiz perpausean leku finkoa hari seinalatzen oso zaila. Edo, nahiago bada, oso erraza, leku batean nahiz bestean ager daitekeenez gero, batez ere perpaus luze eta nahasietan, non ez bait dakizu zein osagai markatu behar duen edota bat baino gehiagoko marka bait dezake. Idazleari zor zaion errespetu guziarekin, neure buruari galdetzen diot zergatik idatzi zuen, esate baterako, Jean Etcheparek lehen aipatu liburuan

(274) «Baionan zela ere bilkua erran daukute» (23. or)

eta ez ote zezakeen honela ere idatz, bere lehengo haietan bezala,

(275) Baionan zela bilkua erran ere daukute

Berebat beste esaldi honetan

- (276) «Agertuko dira aski goiz ondoko egunetan, lanetik baita ezagun langilea. Bertzalde langile oner ere ez zakote laket... ororen aho mihitan erabiliak izaita» (26. or.)

«Langile oner ere» dio eta ez du, haatik, horren aitzinean «langile gaixtorik» aipatu eta esan haiei ez zaiela atsegin jendearen aho mingainetan erabiliak izatea. Ez ote zezakeen esan, beraz,

- (277) ...Bertzalde langile oner ez zakote ere laket...

Bai segurki. Horrela ere esan zezakeen; horrela ez esana ez dugu uste, halere, inork okertzat joko duenik.

18. Gauzarik garrantzitsuena esatea falta dugu *ere*-ri buruz: *ere* beti enklitikoa da. Hots, ez da bere eskuko hitza edo hizkia, besteren arrimuan egon behar du beti eta hari, aurrekoari, ertsiki loturik, harekin bat eginik ahozkatu behar da, bien artean pausadirik, ez eta txikienik ere, ezin egin daitekeelarik. Ederki esana du Mitxelenak aspaldixko:

- (278) «La posición en la frase indica que, lo mismo que el artículo y algunas posiciones, partículas como (*b*)*ere* 'también' eran tan enclíticas como en latín *-que*²³»

Gaurko euskaldun gazte askok honetan huts egiten dute, eta era askorata egiten huts, hitz egiterakoan. Nabarmenenak bakarrik aipatuko ditugu hemen. Inork halako gauza bat ere egin duen edota halako laguna ere ikusi duen edota beste mila eratako galderak egitean, erantzun ohi dute:

- (279) Ere bai

edota are okerrago

- (280) Ere

Beste askok hain huts nabarmenik egin gabe eta hizki horren aurrean beste hitzen bat ezarri arren, hitz horren eta *ere*-ren artean isilunetxoa egin ohi dute, *ere* aurreko hitzari, biak bakarria balira bezalaxe, lotu eta azento bakarrez ahozkatu beharrean. Honela esan ohi dute, alegia:

- (281) Arratsaldean ... ere bai
Gure aitak ... ere bai

19. Hori oker delakoaren arrasto ezin garbiagoak aurkitzen ditugu, haatik, Etxepare eta Leizarragan, besteak beste. Honek, orrialde hauetan aldatu ditugun haren aipamen guziek erakusten digutenez, *ere* beti beti aurreko hitzari marrazko batez loturik idazten du. Ikus (161), (177), (178), (256), (257), (262).

Etxeparearen iharduera are argigarriago da. Alde batera utzirik grafian berean *ere* aurreko hitzarekin baturik ematen dizkigun *cenbaitere*, *ehonere*, *harenere*, *eceynere*, *bethiere*, *bebinere*, *huraere*, *gucere*, *cerere* eta abar, bertsogintzako lege harrigarri baten

23. K. Mitxelena, *Fonética Histórica Vasca*, 382. or.

bidez ematen digu aditzera *ere*-k bere aurrean ez duela pausaldirik, isilunerik, geldialdirik laburrena ere onartzen.

Hona nola. Gauza jakina da Etxeparek hamabost silabatako bertsoari zesuraz gain beste bi eten txiki egiten dizkiola beti. Alegia,

(282) Munduyan den / guizon oroc // behar luque / pensatu (I, 1)

Zesurak berekin du geldialdi luze samarra egin ahal izatea; beste bi eten txiek –laugarren eta hamabigarren silaba ondokoek– pausaldi laburragoa, berriz. Horrek esan nahi du zesuraren alde banatan dauden perpaus zatiak edo sintagma edo hitzak ez daudela elkarri eten txikien alde banatan daudenak bezain lotuak. Eta hori, jakina, sintagma horiek egunoroko aho hizkeran gertatzen direnean ere bai, egunoroko hizkeraren eta ahozkeran legeen errainua baizik ez bait da Etxepareren bertsoagintza, horretan eta bestetan.

Orain bada, Etxeparegan *ere* ez da inoiz ez zesuraren eskuinalde hurbilean bakarrik, ez eta –harrigarriago dena– eten txikien eskuinaldean ere agertzen, arrimua ematen dion hitzetik zesurak nahiz etenek bakandurik. Alegia, harengan ez da sekula honen antzeko bertsoak aurkitzen:

(283) Gaztetan nik / *ere* egin dut // bekaturik / segurki

Are gutxiago honen antzekorik:

(284) Orduan Zuk /, Jainko, niri // *ere* idazu / grazia

Baizik *ere* beti bere sostengu den hitzarekin batera dago lau silabatako moldean sartua. Honela:

(285) «Saynduac *ere* / ordu hartan // oro egonen ixilic» (I, 287)

Edota honela:

(286) «Gaoaz eta / egunaz *ere* // badu plazer / handia» (III, 53)

Ziburuko Etxeberri bere bidetik dabil. Honek ez zituen egunoroko aho hizkeraren legeak hark bezain zorrozki betetzen, eta hala lasai esango digu:

(287) «Eta gende infidelac // *ere* sortzen gogorqui» (6. b.)

(288) «Etçaitut ordean hala // *ere* asqui laudatcen» (192. b.)

Azken honetan ezin urratuzkoa dirudien *hala (e)re* bera erdibitu duelarik.

20. Baliapide asko du *ere*-k euskal syntaxian. Esate baterako, baldintzazko esanmolde guziak kontzesibo bilakatzen ditu:

(289) Etorriko balitz *ere*,...
Ikusiz gero *ere*,...
Esanda *ere*,...

Berez galde-hitzak diren izenorde eta adberbioak –*nor*, *zer*, *non*, *noiz*, *nola* eta abar— erlatibozkoak bihurtzen ditu eta haiei esanahi orokorra edo ematen; alegia,

- (290) Nor ere ikusiko baituzu,...
 «Non ere, norequi ere bainis» (Oih. I, 19)
 «Nois ere bazen baizizauzat» (Oih. I, 24)

Ikus ere lehen aipatu dugun Axularren hura (264, c). Horiek *nornabi, nonabi, edonorekin, noiznabi* eta abarren esanahia hartzen dute.

Adberbio batzuei ere elkartzen zaie, ia beti nolazpaiteko kutsu kontzesiboa emanik: *hala ere, inola ere, nolanabi ere, zernabi gisa ere...*

Bizkaierazko *ezpabere* juntagailuan eta formaz honen kide den *ezpere(n)* ekialdekoan ere ageri da; bai eta horren baiezkua den *bedere(n)* adberbioan eta honen kideetan ere.

Beste esapide batzu ere osatzen ditu: *hala nola, izan ere, zer gerta ere, ederki eman ere!, inondik ere*, etab.

X. HAIN GUTXI

1. Ez dakigu egungo egunean ezein euskalkitan bizirik dagoen, baina lehen-go mendeetan —eta ez oso aspaldikoetan— gipuzkeraz ere ezaguna eta erabilia zen, dirudienez. Gregorio Arruek erabilirik agertu zaigu San Mateoren pasartearen itzulpenean (II, 3), eta haren kideko beste itzulpenekin erkatuz gero, *ez eta*-ren antzeko esanahia duela argi dago. Esanahi horretara iritsi arteko bilakabidea aise ikusiko dugu, baldin gaztelerazko ‘tampoco’ (< ‘tan poco’)-rena gogoan har badezagu.

2. Ez dugu, egia esan, autore askorengan idoro, baina bizpahiru euskalki desberdinetakorengan bai, eta gaur, esan bezala, oso ezezaguna denez gero, aipatzea bederen merezi zuen. Arruez gain beste hirurotan aurkitu dugu, Oihenart, Ziburuko Etxeberri eta Fray Bartolomegan, eta ziur gaude gehiagok ere badarabilela.

Ikus Oihenarten pasartea:

- (291) «Andr' Emili' andre gora,
 Ecin diro oguiric < orha > ora
 Artoric jorra *hain guti*
 Bihoa mairu herrin gora»²⁴

Egia esan, Oihenartek bere baitatik sortu bertsoak ez dira horiek, nafar kanta zahar batekoak baizik, dioskunez.

3. Axularrengan ez da behin ere ageri; aldiz Ziburuko Etxeberrik aski usu darabil. Hona pasarte batzu:

- (292) «Gutziz ere ez desira lagunaren espossa
 Berceren ona hain guti beharco duc iduqui» (174-5)
 (293) «Aduocatic ezta ceren hautatu ararteco
 Ecen Cerua da falten mendecu escatuco.
 Hain guti da barkhamendu escatceco lekhurik
 eta ezta ceren bilhatu handien fauoreric» (2213-6).
 (294) «Deabruric ezta hersten officio hartara
 Hain guti du sarthuz guero punitcen Deabruac»

24. A. Oihenart, *L'Art Poétique Basque*, 30. or.

4. Hiru pasarteotan *hain guti*-k ezezo juntagailu kopulatiboaren lekua betetzen du, lehenxeago esan bezala, gaztelerazko 'tampoco'-k bezalaxe. Hori ez da traba, ordea, gaztelerazkoak bezalaxe, euskarazkoak ere horri *ez* gainera diezaion. Ikus pasarte hauetan:

- (295) «Ezteçaquela haragui ian aiphatu muguetan
Ez hain guti Orcirale eta Larunbatetan» (745-6)
(296) «Eta Airean ez tire hegaturen choriac
Ez hain guti larrañetan ibilliren bestiac» (2337-8)

Azken biotan *ez* agertzeak beste arrazoi bat du, gure ustez. Ohar zaitetz hiruhiretan *hain guti* adizki laguntzailea espresuki esana duen sintagman dagoela: *duc, da, du*; azken biotan, aldiz, *ez*. Honek lehen ikusi ditugun *ez.. ez..* tankerako esaldiak gogorazten dizkigu eta funtsean gauza bera dira, alde txiki batekin: biotan *hain guti*-k indartu du bigarren perpaus zatiko *ez*. Gazteleraz adieraztea zilegi bazait, lehen hiruretakoa «no..., tampoco...» litzateke eta kopulatiboak baino ia elkarri eratxekiak edo iuxtapuestak gehiago; azken bietakoa, berriz, «no..., ni tampoco...».

5. Hona azkenik Fray Bartolomeren bi esenplu:

- (297) «Ez da emen ezer esaten pecatu eguinac arimara dacarren tristecia ta penia gaiti. Ta ain guichi pecatubac... zoruai emon oideutseen...»²⁵
(298) «Alan Biguiraco olgueeta desonestuban daviltzanac inoc absolvidu ezin leguiz... Ta ain guichi bere echian biguiria eguiten davena»²⁶

Ohar zaitetz hemen Fray Bartolomek (*e*)ta ezartzen duela *hain guichi*-ren aurrean, Ziburuko Etxeberrik ez bezala.

XI. GAURKO ERABILERAK

1. Ezin nezake lan hau amaitutzat eman azken urteotako euskara mintzatuak batikpat, baina idatziak ere bai, hartu dituen kopulatiboak erabiltzeko zenbait tankera berri aipatu gabe. (*Salatu gabe* idaztera nindoan, baina, tira!, bego horretan). Ez dakit zergatik den; inguruko erdaren eraginagatik esango nuke nik; baina arrazoa zeinnahi dela ere, lehen –ez oso aspaldi gero!– inoiz esaten ez ziren, are gutxiago idazten ziren, eta– hau garbi esan behar da –egungo egunean oraino haurretandik euskara ikasi eta komunzkiro euskaraz mintzaten diren zenbait herritako –neurekoak barne direla– haurrek eta gazteek esaten ez dituzten esapide kopulatibo bihurriak entzuten eta irakurtzen dira zenbait herri eta hiritan.

Hizkuntzak aldatu egiten direla mundu guziaz daki; esanmolde berriak sortzen direla ere bai. Sortzen den guzia ona dela eta inolako frenurik ipini gabe ontzat eman behar dela uste duenarentzat ez da eraskin hau egina. Eraskin hau da egina, aitzitik, bostehun urtez euskalki guzietako idazleek ia modu berean erabili dituzten formei ahaleginean eutsi behar zaiela uste dutenarentzat.

Kopulatiboez baliatzeko modu zahar eta berrien arteko bereizkuntzarik na-

25. Fray Bartolome, *Euscal errijetaco olgueeta...*, 25. or.

26. Fray Bartolome, hor berean, 114. or.

barmenenak ipiniko ditut hemen, segur izanik ez ditudala era oker guziak sartuko. Ene ustez bi iturburu dituzte bereizkuntza horiek. Bat: *ere*-ren indar adierazkor eta pisu fonikoa ahuldu egin da gaurko hitzun askorentzat eta iruditzen zaie motz gelditzen dela buruan duten gaztelerazko ‘también’ (edo ‘tampoco’) adierazteko, baldin hori beste hizki *-bai, ez, eta-* kopulatiboez sendortzen ez badute. Bi: hizki kopulatibo osatu hauek berak erabili behar edo erabil daitezkeenean ere ez dituzte sarritan perpausean betidanik izan duten lekuan edo hartu duten jarreran kokatzen.

Ager ditzagun okerren bi iturburu hauek.

2. Zerrenda etengabea litzateke oker guziena eta aukera egingo dut beste asko baztertuz. Diodan aurrenik, halere, merezi lukeela geure ikasleei, euskaldun berritzen ari direnei batez ere, esaldi labur hauek behin eta berriro esaneraztea eta gazteleraz pentsaturik buruan dutena horrenbestez ongi esana dagoela errepikatzea:

- (299) Nik ere bai
 Bihar ere bai
 Atzeraka ere bai
 Ataunen ere bai
 Bakarrik ere bai

Edota aditza erabilirik:

- (300) Nik ere badakit
 Bihar ere bada
 Atzeraka ere ibiltzen da
 Ataunen ere egon da
 Bakarrik ere egingo nuke

Ezezkoak direnean gauza bera:

- (301) Oinez ere ez
 Nik ere ez
 Bihar ere ez
 Etzanda ere ez
 Zurekin ere ez

Edota aditza erabilirik:

- (302) Oinez ere ez daki
 Nik ere ez diot esango
 Bihar ere ez da joango
 Etzanda ere ez du lo egingo
 Zurekin ere ez dut ikasiko

Horrelakoetan *ere*, berriro esan, gaztelerazko kidea baino ahulago edo motzago gertatzen dela iruditzen bait zaie eta, jakina, ez da hala.

3. Horregatik entzuten eta irakurtzen dira hainbat arlotekeria. Hona batzu:

- (303) Jose Marik baitare ikusiko du
 Badugu baita beste galdera bat
 Esan diot baitare etorriko naizela
 Europara etorri ziren baita
 Uste dut erabil dezakegula ere bai telebista
 Ikastoletan banatuko dira baitare
 Bihar baitare etorriko da
 Euskal telebista ere baita hasi da
 Oso ona da baitare egunero 10 km. ibiltzea
 Ez gaitu gu ezta ezagutzen

Horiek *ere* soilaz esan daitezke, are esan eta esaten dira. Honela, alegia:

- (304) Jose Marik ere ikusiko du
 Badugu beste galdera bat ere
 Esan diot etorriko naizela ere
 Europara ere etorri ziren
 Uste dut erabil dezakegula telebista ere
 Ikastoletan ere banatuko dira
 Bihar ere etorriko da
 Euskal Telebista ere hasi da
 Oso ona da egunero 10 km. ibiltzea ere
 Ez gaitu gu ere ezagutzen

Noski, beste modu batera ere esan daitezke horiek, aurki adieraziko dugunez.

4. Guzi horiek aditz sintagmak dira eta horrexegatik ez dute *bai*, *baita*, *baita-re*, ez eta *ere-z* gaineko beste ezeren beharrik. Beste hauek, berriz, ez dute aditzik bere baitan eta horrexegatik gaizki esanak daude, gure ustez:

- (305) Txontxongilo zaleak baita
 Nik baitare
 Bihar goizean baitare

Horiek gehienetan azkenean *ere bai* erantsirik esan ohi dira. Honela:

- (306) Txontxongilozaleak ere bai
 Nik ere bai
 Bihar goizean ere bai

Bai eta, lehen (IX, 13) esan bezala, euskalki batzutan bederen, azkeneko *bai* gabe ere. Eta, zer esanik ez, honela ere bai:

- (307) Bai eta txontxongilo zaleak ere
 Bai eta nik ere
 Bai eta bihar goizean ere

5. Izan ere, —eta hau da, hain zuzen, (303) eta (307) arteko alde edo diferentzia, bai eta gaurko erabilera traketsentzat gorago seinlatu dugun bigarren iturburua— *bai(e)ta* eta *ez(e)ta*, gero *ere* dutela edo gabe, idazle zaharrek beti aditz nahiz izen sintagmaren hasieran ezarri ohi zituzten eta ez sintagma barnean beste hitz batzuen ondoren. Hori horrela dela sinesteko aski da lan honetan metatu ditugun Etxepareren, Leizarragaren, Axularren eta gainerakoen exenpluak

berrikustea. Dozenaka dira eta ez da, halere, aurkituko hizki konposatu horiek perpaus hasieran ez dituenik.

Eta inork pentsa ez dezan kontu horiek ekialdeko idazle zaharren xorrozkeriak zirela, ikus Fray Bartolomereren hauek ere, bizkaiera puntu honetan beste euskalki guzietan bat bait dator:

- (308) «Zeuc dacuszu nire naija eguijazcua ta arteza dana. Baita nire eguina ezer ez dana bere» (*Euscal errijetaco...*, Hitzaurrean)
- (309) «... diadar eguiten davee... Eracuslaac. Baita Espiritu Santubac bere lecu ascotan, aitu gura dauenarentzat» (8. or.)
- (310) «Izan leitequez onac, baita arin onac bere» (28. or.)
- (311) «Cristinaubeen dotrinaan castidadiaren contraco pecatu mortala da... Baita pecatu mortala da... egotia bere. Baita da eguiija... ondo daquijeela... Baita... alegrau diriala... Baita eguiija da... provechuric ez dauqueela...» (98-101. or.)
- (312) «Abadeena ta Praileena andijagua (juaten badira); baita zubeena bere conde-neetaco duina» (177. or.)
- (313) «Jazo leiteque... zubei ibilten istia. Baita jazo leiteque... alcarregaz impernucio dantzara juatia bere» (178. or.)
- (314) «Eguiija da... escatuten davena. Baita cetan edo atan olgau leitequiana bere...» (189. or.)
- (315) «Pecatu mortaleco ocasinoe urrecua da alaco saraucio dantza naastia ta olgueeta indecentia. Baita... alaco dantza naastua loijan ibiltia bere» (119. or.)
- (316) «Asi nintzan dantza zaliac esamineetan, baita Eleisiaren Eracuslaac danteen gainian cer dinuen iracurten bere» (125-6. or.)
- (317) «Moisec emon eutseen libertadia Judugubai... Baita campotarra logrerijan aurraz cerbait presteetaco bere» (148-9. or.)
- (318) «Legueguinac parcatu leguijee... Baita comedijac eguiteco licencia emon bere...» (149. or.)
- (319) «...ceintzubetan eragozten jacuen..., baita besteen naasteco dantzia berarijaz icustia bere...» (172-3. or.)

6. Ikus beste pasarte bakar batzu, perpaus hasieran *ez(e)ta...(ere)* daramatenak, ezezkoak direlako:

- (320) «Ezdrialala guztiac izango. Ezda guichiago ta guichiago bere» (167. or.)
- (321) «Ez dogu iracurten Jesucristo olgau zanic. Ezda Ama Virginia olgau zanic bere. Ezda San Juan Bautista olgau zanic bere» (190. or.)
- (322) «...ezin leguijee. Ezda Jaungoicua onzat emoten davena bere guizonac conde nau» (12. or.)

7. Hau honela delarik, lehengo sorta hura (304) honela ere esan daiteke:

- (323) Baita Jose Marik ere ikusiko du
Baita beste galdera bat ere badugu
Baita etorriko naizela ere esan diot
Baita Europara ere etorri ziren

eta abar. Edota, Etxeparek beti egin ohi duen bezala, *ere baita*-ri eratzikiz: *bai(e)ta(e)re*. Alegia,

- (324) Baietare Jose Marik ikusiko du
Baietare beste galdera bat badugu

eta abar.

8. Hori da betiko ohitura, gaur ere edozein euskalkitako hiztun euskaldun berri ez direnek gordetzen dutena, orduoro eta nonnahi entzuten bait ditugu honelakoak:

- (325) Baita nahi ere
 Baita behar ere
 Baita ederki eman ere!
 Baita oinutsik ere
 Baita hankapez ere

Berebat honelakoak, ezezkoak baldin badira:

- (326) Ezta nahi ere
 Ezta behar ere
 Ezta Alkate jauna bera ere
 Ezta ametsetan ere
 Ezta deus ere

Edota lehengo batean 8 urteko umetxo bati entzun nion hau, bere gurasoak bidai batetik etxeratu eta autoa etxe aurrean baztertzera koan, etxeko seme-alabei heldu zirela adierazteko tutua jo etzietelako:

- (327) »Ezta bozinie jo're!» (= Mira que ni...)

9. Eta azken aurreko guzi horiek ez bait dira aditz sintagmak, honela ere esan daitezke, noski:

- (328) Nahi ere bai
 Behar ere bai
 Ederki eman ere bai!
 Oinutsik ere bai
 Hankapez ere bai

Halaber ezezkoak:

- (329) Nahi ere ez
 Behar ere ez
 Alkate jauna bera ere ez
 Ametsetan ere ez
 Deus ere ez

Eta hau, zer esanik ez, bizkaieraz ere bai. Ikus Fray Bartolomeren pasarte hauek:

- (330) «...gentiac atera oidituban ocasinoiac,...burrucac, maquilacaac ta guizon ill-tiac bere bai» (75. or.)
 (331) «Biguiria gavaz eguiten dan leguez, sarauba bere bai» (116. or.)
 (332) «Biguiria gaztiac duazan leguez gueijenian, Saraura bere bai» (116. or.)
 (333) «... erantzuten jacue... guizonac nai emacumiac Eleisaan bere eguin leguijala, echian bere bai, soluan bere bai, altaraan bere bai...» (186. or.)

Ezezekoak badira, gauza bera:

(334) «Celan librauco ditubee... mutilac eta nescaac? Eccelan bere ez. Inundi bere ez. Inoc bere ez, ... inos bere ez» (129. or.)

10. Berriro esan: sintagma berean adizki pertsonalik ez dutenean. Baina baldin badute, ezin da horrela esan eta horrexegatik hauek ere oker daude, ene us-tez

(335) Tipo ona da ere bai
Ama etorriko da ere bai
Txuleta jan genuen ere bai
«Bere emaztia da profesora de euskera ere bai»

Azken hau esan zidanak honako hau eman nahi zidan aditzera:

(336) Bere emaztea ere euskal irakasle da

Honen antzera esan behar dira aurreko beste hirurak ere:

(337) Tipo ona ere bada
Ama ere etorriko da
Txuleta ere jan genuen

Edota, lehen hori bederen, honela; izan ere, maiz beste hau adierazi nahi ohi dute hori diotenek, lehen (IX, 16) esan dugunez:

(338) Tipo ona da Pello ere

11. Batzutan bereiz eta soilik harturik ongi esanak diren perpausak testu inguruak salatzen ditu txartzat eta belarriak gaitzesten erabat. Esate baterako, nork esan *Mendian ere bai* gaizki esana dagoenik? Halaz ere, elkarrizketa honetan ezin onar daiteke inola:

(339) -Atzo mendian izan ginen
-Eta gaur?
-Mendian ere bai

Gaur ere bai edo *Gaur ere mendian* zor zaio galdera horri, *Eta gaur (non)?* izan bait da galdera, edo *Eta gaur (ere mendian)?* laburturik egina.

Modu berean *Gaur ere bai* izan daiteke erantzun egokia testu inguru batean, hor ikusi dugunez, baina beste batean guziz aldrebesa. Honetan, esate baterako:

(340) -Mikel gaur etorri da
-Eta Joxe?
-Gaur ere bai

Joxe ere bai edo *Joxe ere gaur* erantzun beharrean, *Eta Joxe (noiz)?* galderari dagokionez. Ikus azkenik lehengoan entzun nuen beste hau:

(341) -Atun ederra jan dugu. Goian zer jan dute?
-Hauxe ere bai

Goian ere hauxe izan behar zukeen erantzunak.

Berriro esan: txartzat ematen ditudan hiru perpaus horiek berez eta beste so-las inguru batean ongi esanak egon daitezke. Alegia, bakarrik harturik ez dira agramatikalak, baina testu inguru horietan bai. Zergatik? *Atzo*-ri kontrajarriz *Gaur non?*, *Mikel*-i kontrajarriz *Joxe noiz?* eta *Bebeko atunari* kontrajarriz *Goian zer?* izan direlako galderak eta *non*, *noiz*, *zer* horiek hiru elkarrizketetan lehen aipatu berak direlarik, erantzun osoak hauek izan behar zuketelako:

- (342) Gaur ere mendian izan gara
 Joxe ere gaur etorri da
 Goian ere atuna jan dute

hiruretan aditz sintagmaren ordez *bai* ipin daitekeelarik, gorago irakatsi du-gun legez, *ere* indarturik.

12. Beste askotan –hau ere gorago (IX, 18) esana dugu– bere lekuan ipini eta kokatu ohi dute hiztun batzuk *ere bai*, baina perpausa ahozkatzeko erak ematen du min, horren aurrean pausaldia egin ohi bait dute. Honela ahozkatu ohi dute, alegia:

- (343) Sagardoa... ere-bai edan dugu
 Andereñoa... ere-bai hil zen

Han esan bezala, enklitikoa da beti *ere* eta ezinbestean aurreko hitzari itsatsi-rik ahozkatu behar da. Gaizki ahozkatzen dutenek, ordea, aurreko hitzetik askatu eta *bai* gabe esan daitezkeen perpaus horiei *bai* erasten diete, enklitikoa behar lu-keen *ere* hartara *bai*-ren proklitikoa bihurturik.

13. Bada oraindik beste ohitura bat hegoaldean zain handi eta zaharrak di-tuena, dirudienez, Fray Bartolomegan ere ageri bait da. Gorago (I, 7) aipatu du-gun beste hartan bezalaxe, hemen ere *eta* birresaten da, hegoaldekook diogun *baita*, *ezta* (*ezda*) horiek berek *eta* bere baitan gordea dutela ahaztu eta beste bat gehiturik:

- (344) ...laguntza behar dut erosteko eta baita... jaso ahal izateko.
 Atzo afaldu nuen eta baita gaur ere
 Atzo ez zen etorri eta ezta gaur ere

Horietan bi bider esana dago *eta*, *baita*-k eta *ezta*-k bere baitan bait dute bana. Aski da horrela esatea:

- (345) ...eta jaso ahal izateko ere bai
 ...eta gaur ere bai
 ...eta gaur ere ez

Honako hau idatzi zuenak *eta ez ezik ere* bitan ipini zuen:

- (346) «... bultzatzaile eta baita ere une zail baten lehendakari ere»

Beste hau are bitxiagoa da:

- (347) «...eztu inork ezeztatzen, eta baita mundu oso bat ezkututzen dela hitzen os-tean: hori ere ez»

Horko «eta baita» horren lekuan «ez eta» behar zukeen; hartara azken «hori ere ez» horren beharrik ez zen.

Ikus Fray Bartolomeren biok ere:

(348) «...ez dot pecatu mortaleti libreetan alaco emacumia... Ta ezda guizona bere» (128-9. or.)

(349) «Ezda errez sinistuten... dantzan eguiten daveela. Ta ezda... olgheetan ibilten diriana bere» (168. or.)

Aski zuen honela esatea, bestetan ohi duen legez: «... Ta guizona bere ez», «Ta... olgheetan ibilten diriana bere ez».

14. Aipa ditzadan azkenik egungo egunean oso zabalduak dauden beste esae-
ra batzu. Gero eta gehiago entzuten dira, lehen ez bezala, perpausaren hasieran
adizkia ipintzen delako, agian:

(350) Joan zen baitare gure etxera
Esan diot baitare zu hemen zaudela
Erosi du baitare auto berria
Aukeratu daitezke baita

Batez ere azken konplemento edo konpletibo gabe esanik entzuten dira, *baitare* edota *baita*-z amaiturik, azken hori bezala. Horiek gaizki esanak daude eta era batera baino gehiagotara esan daitezke zuzen:

(351) Baitare joan zen...
Baitare esan diot...
Baitare erosi du...

Honela ere bai:

(352) Gure etxera ere joan zen
Zu hemen zaudela ere esan diot
Auto berria ere erosi du

Eta inori egin galderak osagai guzi horiek bere baitan baldin baditu, esate baterako

(353) Zuen etxera ere joan al zen?

orduan *Baita* edo *Baitare* soil soilik erantzun daiteke; ez, ordea, askok ohi due-
nez, *Ere* edo *Ere bai* soilik. Ez eta ere, inork

(354) Gora bakarrik joan al zen?

galdegiten badu, behera ez alegia, ezin daiteke erantzun: *Eta ere behera*, baizik *Eta behera ere (bai)* erantzun behar da. Ez eta inork

(355) Aita bakarrik igo al da?

galdegiten badu, honela ere: *Eta ni*, baizik *Eta ni ere (bai)*.

15. Hona, bukatzeko, berriki entzun eta irakurriak:

(356) «Niri ematen badidate, oso ondo; baina niri ordez behartsuei ematen badiete, pozik ere geldituko naiz».

Hor *ere* dagoen lekuan baino hobeki zegokeen beste hiru lekuotan:

- ... ematen badiete ere, pozik geldituko naiz
- ... ematen badiete, pozik geldituko ere naiz
- . ematen badiete, pozik geldituko naiz ere.

(357) «Hau ez da ezta planteatzen»

Honela hobeki:

- Hau ez da planteatzen ere
- Hau ez da planteatu ere egiten

(358) «Gizadi mailan gertatzen dena gertatzen zaigu, baitare, eliza mailan»

Hobe hortik *baitare* ezabatu eta bukaeran *ere* esan.

(359) «Haiekin hitz egin nahi badut, nik baita telefonoa jarri beharko dut ere»

Hor *baita*-ren ordez eta horren lekuan *ere* ipintzea hobe, azkenetik kendurik.

16. Seinalagarri dela uste dut lan hau amaitzeko puntu honetan euskarak betidanik izan duen eragin bortitza gazteleraz nola-hala mintzatzen ziren euskaldunen ahoan. Honelakoak milaka entzun izan ditugu –ez dut esan nahi gehiago entzuten ez direnik– guziok, agian euskararen errainu bizia zirela ohartu gabe:

- (360) «Esta mañana-también / ya le he dicho»
- (361) «El padre-también / no ha comido»
- (362) «Olvidárseme incluso se me ha hecho ya»

Euskarara itzul itzazu hitzez hitz eta garbi ikusiko duzu hori diotenen *ere* euskaraz enklitikoa dela zein ederki dakiten. Azken orrialde hauetan salatu ditugun berrikeriek, aldiz, erakusten digute urte batzuetatik hona gaztelera, are erdara, dela euskararen zimenduak harrez jotzen ari dena. Erdara diot, iparraldeko batena bait da honako hau:

(363) «... euskalduna genuen, eta ere... euskalduna zen familiakoa»

Gorago irakatsi dugunez, honela hobe zitekeen:

(364)«... euskalduna genuen, eta... euskalduna zen familiakoa ere (bai)».

Ala *are* idatzi nahi izan ote zuen eta ez *ere*?

